



Ikusleen parte hartzea oinarri duen ikuskizun esperimental artistikoa

Durango • Bagara kolektiboak 'I[n]tera[k]zio laborategia' aurkeztuko du asteburu honetan. Ikuskizuna ikusleen interakzioagaz eskainiko dute. Musika, gorputz adierazpena eta irudiak konbinatuko dituzte. Obra barikuan eta zapatuan taularatuko dute • **24**

Durango Nissan Gaurisa Euskadiko azpitxapeldun geratu da errugbian

Errugbia • DRTko gizonen talde nagusiak Euskal Liga irabazteko aukerak izan ditu azken jardunaldira arte. • **26**



Plateruena: sorlekua eta oholtza

'Plateruena ta gero zer?' dinamikaren ondorioekin osaturiko kudeaketa proiektua aurkeztu dute asteon: 'Plateruena: lantegi eta erakusleho'. Egitasmo berriak "kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa" izan behar duela da proiektuko ardatzetariko bat, sustatzaileek aurkezpen ekitaldian azaldu zutenez. • **24**



Mahaia ipintzeari ekin diote berriro

Denbora luzean zarratuta egon eta gero, elkarre gastronomikoez berriro zabandu dituzte ateak. Lagun arteko otordu, algara eta kantuek txokoetako barrualdeak bete dituzte berriro. Hori bai, oraindino ezer ere ez da lehengoa. Osasun neurriak indarrean daude. Dena dela, Durangaldeko txokoetako kideek gogotsu berrekin diote jardunari • **2-3**



Zaldibar
eta
Zornotza
2021



gandarias

Interiorismo

LIKIDAZIOA jubilazioagaitik

Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango - info@mueblesgandarias.com - Tel.: 946 810 722

Sukaldeko sua isiotuta dago berriro

Gure kulturaren ikur diren elkarte gastronomikoen berriro zabaldu dituzte ateak. Hori bai, osasun mugekin. Dena dela, Durangaldeko txokoetako kideek gogotsu hartu dute berriro ere lagun arteko otorduen bueltan batzeko aukera



Abadiñoako Gaztañodi elkarte gastronomikoa.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Asterixen eta Obelixen abenturarik gehienak halantxik amaitzen ziren, otordu erraldoi bategaz. Tira, otordu erraldoi bategaz eta arbola bati loturiko koblakari gizarajoaren irudiagaz. Eta gure herrialdean ere, gutxi-asko, antzera bateko ospakizunekin hasten edo amaitzen dira lagun arteko abenturak. Maitasunez kozinaturiko jeneroagaz, edanagaz, eta eztarriak urratu beharrean kantuan. Kasu honetan, baina, koblakariak aske dira.

Eusko Jaurlaritzak orain aste batzuk altxatu zuen elkarte gastronomikoen zarratuta mantentzeko debekua, eta, apurka-apurka, lapiko zaratak Durangaldeko txokoak betetzen hasi dira. Hori bai, oraindino ezer ere ez da lehengoa. Osasun neurri ugari dago indarrean eta elkarteek hainbat muga dute. Ostalaritzaren irizpideak bete behar dituzte. Edukiera erdira murriztuta dago, eta goizeko bederatzietatik gaueko ordu biak arte egon daitezke zabalik. Horrez gainera, mahai bueltan sei lagun batu daitezke gehienez ere.

Erreportaje honetan eskualdeko hiru herritako kideen testigantzak jaso ditugu. Txoko batetik bestera desberdina da errealitatea, baina kide guztiak bat datoz puntu honetan: elkarteak ateak zabaltzeko eta otorduak egiteko gogoia igarri dute bazkideen artean.



**ARRATE ELKORO eta
AITOR ASTIGARRAGA**

Durango, Napar

“Zabaldugunean, berehala egin dira erreserbak; beraz, badago gogoia”

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Arrate Elkoro Zengotitabengoa (Durango, 1979) eta Aitor Astigarraga Agirre (Durango, 1969) Napar txokoko juntako kideak dira.

2018ko otsailean inauguratu zuten elkarte gastronomikoa. Pozik hartu dute irekiera.

Bueltatu da aktibitatea txokora?

Aitor Astigarraga: Legeak zer dioen ikusi eta gero, joan zen barikuan zabaldugune genuen txokoa. Asteburuan mugimendua egon zen.

Txokoak zabaldugune zitezkeela esan zutenean, zelan hartu zenuten albistea?

Arrate Elkoro: Oso gogotsu gaude. Txokoa erabiltzeko gura dugu. Txoko hau oso berria izanda, albiste ona da. Aldi berean, ardura batzuk ere baditugu. Arauak aldatu, aforoak mugatu... Horrek badu bere alde negatiboa. Txokoak funtzionatzen du

erabilera handia badago. Oraingoan, kontu ekonomikoak ondo daude, baina horrek ere sortzen du kezka.

A.A.: Zabaldugunean, berehala egin dira erreserbak; beraz, badago gogoia. Iaz zabaldugunean, ez horrenbeste.

A.E: Erabiltzaileen Whatsapp taldea dugu eta dekretua kaleratu zutenean, txaloak eta horrelakoak egon ziren (barrez).

Ibili zarete txokoa asteburuan?

A.A.: Asteburuan ez gara egon. Baina joan zen eguaztenean juntako batzarra egin genuenean estreinatu genuen. Suak eta horrelakoak ea funtzionatzen zuten begiratu behar genuen.

A.E: Dena atondu genuen. Iraungipen data pasatuta zuten produktu batzuk kendu, beste batzuk eskatu... horrelako gauzak egin genituen.

Zenbat denbora egon da itxita?

A.A.: Urte eta erdi. Iazko ekainean eta uztailan zabalik egon zen. Guk geuk erabaki genuen abuztuan ixtea, mugimendurik egongo ez zelakoan.

Gatxa izan da arau berrietara moldatzea?

A.A.: Esate baterako, erreserbak sistema informatiko baten bitartez egiten dira eta konfigurazio hori aldatu egin behar izan dugu. Sei pertsona egon daitezke gehienez. **Pandemiaren eraginez bazkideren batek uztea erabaki du?**

A.E.: Hiru aldaketa izan genituen pan-

demiaren aurretik, eta horiek atzeratu behar izan ditugu.

Egoera honek izan du eraginik ekonomikoki?

A.E.: Hileko kuota dugu, eta, aldi berean, gastu batzuk murriztu egin ditugu. Beraz, kuotagaz gastu finko batzuk estali ditugu. Baina zabaltzerakoan beste gastu batzuk etortzen dira eta horiek erabilera-gaz estaltzen dira.

Egoera honetan juntan egotea egokitu zaizue.

A.A.: Junta erdia sei hilero berritzen da. Beraz, beti dago aurretik egon den baten bat. 2019ko irailean sartu ginen eta 2020ko irailean arte egon behar genuen. Gure aurretik zeuden beste hiru horiek 2020ko otsailean irten behar zuten. Aldaketa orain egingo dugu. Gure aurretik zeuden hirurek irten egingo dute eta beste hiru berri sartuko dira. Beraz, irailean urte bi egingo ditugu.

A.E.: Dena atzeratzen joan da. Batzarra ere atzeratu genuen eta hori barik ezin da junta aldatu.

Zelako batzarra egin zutenen?

A.E.: Telematikoa izan zen.

A.A.: 2020ko martxoan egin behar genuen batzarra, baita bazkideen bazkaria ere, baina etorri zena etorri zen gero.

Izan duzue buruko minik kudeaketan?

Nahikoa lasai ibili gara. Erreserbak egiteko sistema, eskaerak egitea... Baina buruko minik ez. Nahikoa ados egon gara denok.



ESTI ANIA URIBARREN

Gaztañodi elkarte

“**Datorren astebururako ateak berriro ere zabaltzea da gure asmoa**”

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Esti Ania Uribarren Abadiñoiko Gaztañodi elkarteko bazkidea eta zuzendaritza taldeko kideetarikoa bat da. Elkarrekin 2012an zabaldu zituen ateak eta 41 bazkide ditu gaur egun.

Elkarte gastronomikoak zabaltzeko baime-
na indarrean dagoen arren, zuek egoera
berehala harrapatu zaituzte.

Gogotsu gaude zabaltzeko, baina obra ba-
tzuk egiten gabiltza eta, oraingoz, ezingo

dugu hori egin. Iazko konfinamendua amaitu zenean, ekainean, elkartera bueltatu, eta atea zabaltzeagaz batera barruan erre usaina zegoela igarri genuen. Elektrizitate gaitzera bat gertatu zen gu konfinatuta egon ginen bitartean. Gauza asko izoratu zitzaizkigun. Argiztapena, aire girotua, ontzi garbigailua eta horrelakoak. Egunotan aire girotua konpontzera etorri dira eta margoketa lan batzuk ere egin gura ditugu. Jakina, gero garbiketa orokor bat ere egin beharko du-
gu. Datorren astebururako ateak berriro ere zabaldu ahal izatea da gure asmoa.

Bidean izan duzuen beste kalte bat da elkarrekin biltegiaturiko produktuak iraungi egin zaizkizuela.

Bai, baina, zorionez, ez da gauza handirik izan. Hozkailuko produktuak galdu dira, freskagarriak, garagardoa gehienbat.

Zuen bazkideen artean ba al dago txokora bueltatzeko gose hori?

Bai, bai, igartzen da. Jendeak galdetzen du elkarte noiz egongo den erabilgarri. Txoko honetan mugimendua egoten da aste barruan. Egunean, batez ere. Kua-drillatxo bat etorri ohi da hona.

Txokoak zarratuta egote honek eragina izango ote du hartu-eman ohituretan?

Euskal Herrian mahai baten bueltan egi-
ten dira jaiak zein akordioak. Iruditzen zait pandemiak aldatu egingo dituela hartu-emanak. Jende askok beldurra du oraindik. Baina egia da, aldi berean, txokora etortzeko gogoia ere ikusten dudala.



JOSE RAMON LAZKANO ARGINZONIZ

Alkartu elkarte

“**Pandemian zehar txokoak zabalik izan ditugunean jendeak neurri guztiak bete ditu**”

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jose Ramon Lazkano Elorrioko Iturrizoro elkarteko presidentea izan da 40 bat urtean. Pandemiagaz batera, Lazkanok ondorengoei utzi zien lekukoa. Elorrioren ekainaren 26tik daude txokoak zabalik.

Hilabete luzez itxita egon eta gero, dago-
neko heldu da momentua txokoak zabaltzeko. Ordua izan da?

Itxura denez, bai. Kanean denerik entzun izan dut orain arte. Batzuk urduri egon

dira, txokoak noiz zabalduko zain. Beste batzuk, osterara, oraindik goiztxo dela, eta apur bat gehiago itxaron beharko litzatekeela uste dute.

Zu zein iritzitakoa zara? Gogotsu gaude txokora berriro joateko?


Egia esan, ez. Ni apurka-apurka hasiko naiz berriro ere txokora joaten. Pandemiaren aurretik ere ez nuen egun eta ohitura zehatzik izaten txokora joateko. Hilean behin, Iturrizorokoekin batu behar izaten nuen, txokoen eta hainbat konturen inguruan berba egiteko. Orduan bai aprobetxatzen genuen batzarraren ostean afaritxo bat egiteko.

Elorrioren txoko guztiak batera zabaldu dira, denak ekainaren 26an. Eta denak segurtasun neurri berdinekin.

Iturrizoro elkarteak erabaki zuen elkarte osatzen duten bost txokoak batera zabaltzea. Joan zen zapatuan zabaldu ziren denak. Segurtasun neurriak dagokienez, Labik markaturiko neurri guztiak bete beharko dira. Eta ez daukat horren inguruko inongo zalantzarik, badakit horiek zorrotz beteko direla eta. Aurretik, pandemian zehar, txokoak zabaldu izan ditugunean ere jendeak neurri guztiak bete ditu.

Elkarte gastronomikoen funtzioa egiteaz gainera, txokoek indar handia dute herrietan.

Iturrizorok lan handia egin du ekimenak antolatzen Elorrioren. Pandemia dela-eta, hainbat ekimen ezin izan da egin, baina ea apurka-apurka berriro hasten garen.



ELORRIÓN, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta

Durango Turismo Plan berriak jasangarritasuna, memoria historikoa eta irisgarritasuna jasoko ditu

Turismoari loturiko eragileek eta udal agintariak batzarrak hasi dituzte. Planak abendu aldera ikusiko du argia

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hasiera fasean dago, abiapuntuan. Baina hile batzuk pasatuta, herria turisten helmuga izatea gura dute. Durango udal agintariak Turismo Plan berria diseinatzeari ekin diote asteon. Herrian egiten den lehenengo Turismo Plana izango da eta herriko eragileen ekarpeni eskerrak ikusiko du argia. Neskutz Rodríguez Elkarrekin Podemos-Herriaren Eskubidea koalizioko kideak planaren ezaugarri batzuk aurreratu ditu. "Plana bospasei irizpideren gainean eraiki gura dugu. Ingurumenaren aldetik eta ekonomiaren aldetik jasangarria izatea gura dugu. Horrez gainera, garrantzia eman gura diogu irisgarritasunari. Oztupo arkitektoniko direnak eta ez direnak kontuan hartuko ditugu", dio. Horregaitik guztiagaitik, udal agintariak hoteletako ordezkariekin, tabernariekin, kirol elkarteekin eta Geu Be elkarteekin kideekin batuko dira. Azken elkarte honi buruz Rodríguez azpimarratu du Geu Bek txango ugari egiten duela eta ondo



Pinondo eta Santa Ana ingurua.

dakiela zer diren oztopo arkitektonikoak. Haien ekarpena berebizikotzat jo du.

Erreferentzialtasuna

Oraindino goizegi da planak zein ekintza turistiko jasoko duen jakiteko, baina Rodríguez Durangori dagozkion ezaugarriak islatuko dituela jakinarazi du: "Durango erreferentea da kulturen eta euskaran. Horri erreparatu diogu. Bestalde, inguruan mendi ugari dugu eta txango batzuk diseinatu

"Durango erreferentea da kulturen eta euskaran; inguruko mendiei ere erreparatu gura diegu"

gura genituzke. Bestetik, bonbardaketarena dago. Guretzat oso inportantea da bonbardaketa turismo planean txertatzea. Hemen ere bonbardaketa faxista bat izan genuelako eta hori ere mapan ipini behar dugulako".

Plana ontzen hasteko lehenengo bilera atzo egin zuten. Hoteletako eta tabernetako ordezkariekin batu ziren. Aurrera begira, inkestak kaleratuko dituzte. Aurreikuspenak betetzen badira, plan berriak abendu aldera ikusiko du argia.

Durango jaiak prestatzeari ekin diote, egitarau alternatibo bat sortzeko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udala, Jai Batzordea eta Txosna Batzordea bilerak egiten hasi dira jai alternatibo batzuk antolatu ahal izateko. Ekitaldiak antolatu gura dituztela aurreratu dute, baina, horretarako, irailera arte itxarongo dute, bilakaera epidemiologikoa zelakoa den ikusteko.

Egitarau alternatibo horrek Kultur Aro programa izango du oinarri modura, baina hainbat ekarpen egingo dute horren gainean. Agintariak kontzertuak, kale antzerkia, dantzak eta auzoetako jarduerak antolatzea gura dute.



2019ko txupinazoaren une bat.

Garai jauregia euskal kulturaren elkargune izateko lanean dabilza

Udala erakunde publikoekin eta eragileekin batuko da

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durango Udala euskal kulturaren topaleku bat sortzeko proiektua garatzen dabil. Garai jauregian ipini gura du gune hori, eta proiektua babestu ahal izateko eta eraikina berritu ahal izateko asmoz, erakunde publikoekin eta eragileekin hartu-emanetan ipini da. "Eraikin huts bat euskal kulturaz eta ondareaz betetzeko proiektu sendo bat" da udalaren berbetan, "Durangori erreferentzialtasuna eskainiko diona".



Garai jauregia.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko uztailaren 2a
19. urtea - 856. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Gontzal Sarrigoitia garaitarrak harriak margotzeko eta herrian zehar ezkutatzeko jokoak hasi du umeekin batera

Garaiko umeek olgeta berria dute aurrerantzean. Herriko kaleetatik doazela, margoturiko harriren bat aurkitzen badute harriaren argazkia bidali behar diote Sarrigoitziari, WhatsAppez. Sarrigoitiak orain asteburu bi ekin zion jokoari



Sarrigoitia, berak margoturiko harriak eskuetan dituela.

GARAI • EKAITZ HERRERA

Marigorringo itxurako harri erraldoi bat hemen, pinguino itxurako beste bat hor, Rolling Stones taldearen ikurragaz eginiko beste bat han, edo Korrikaren logoekin pintaturiko harri zapal bat harantzago. Lasai. Garaitik paseatzen dabilela baten batek kolore, forma eta ezohiko harriren bat ikusten badu, dagoela trankil, harriak margotu eta herrian zehar ezkutatzeko jolasa da-eta. Gontzal Sarrigoitiak ekin dio olgetari. Errekarriak edo Saturrarango hondartzako harriak hartzen ditu lehenengo. Etxera eramaten ditu gero, eta askotariko irudiekin margotzen ditu, bere etxepeko garajeen. Azkenik, margoturiko harriak Garaiko herrigunean zabaltzen ditu, herriko umeeak

harriok topatzen olgatu daitezten. Mekanika sinplea da: umeren batek harriren bat topatzen duenean argazkitxo bat bidaltzen dio Sarrigoitziari, WhatsApp bitartez, topatu izanaren justifikante modura. "Ume batzuk etorri izan zaizkit pista eske. Batzuek WhatsApp audioak bidali izan dizkidate, laguntza eske. Belarra hazita dagoela-eta, harririk topatu ezinik ibili da hainbat", dio. Orain asteburu bi ekin zion olgetari, eta egunotan errepikatzeari ekin dio. Egunotan udalekuak eskaintzeaz arduratzen diren ki-deekin ere berba egin du, herriko umeen izenak jaso eta bakoitzaren izenagaz harri bana margotzeko.

Sarrigoitziari Vianako kanpinean (Nafarroa) sortu zitzaion harriak pintatzeko harra. "Igerileku inguruan hainbat harri zegoela ikusi nuen eta pentsatu nuen zeozer egin nezakeela. Gerora ikusi dut Zornotzan antzeko joko bat hasi dutela, eta gauza bera egitea erabaki dut, baina Instagram eta sare sozialetatik kanpora, hemengo umeekin", gaineratu du.

Forjarien jauregia ez botatzeko, Zornotzako EH Bilduk eraikina ondare lez babestea eskatu du

"Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean jasorikoa" betetzeko eskatu diote udal gobernu taldeari



ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako EH Bilduren esanetan, gobernu taldearen jarrera "larria eta ardurabakoa" izaten ari da. "Forjarien jauregia botaz gero, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPOa) eta Ondare Kulturalaren Legea urratuko lirateke", esan dute. Koalizio subiranistak "kontraesanetan" jaustea egotzi dio EAJri. Zornotzan indarrean dagoen HAPOak eraikina babestea aurreikusten duela dio EH Bilduk, eta jauregiaren jabeek "eraikina behera botatzeko baimena" ematea aurpegiaratu die jeltzaleei. Ondare Kulturalaren Legeari da-

gokionez, ostera, koalizioak gaineratu du erakundeek eraikin kulturalak zaintzea "lehenetsi" behar dutela, "enpresek edo herritarrek izan ditzaketen balizko interes partikular eta espekulatzailen gainetik". EH Bilduren esanetan, HAPOa lantzeko prozesua "atzera-penagaz" dator, eta EAJ eta PSE-EE egin ditu horren erantzule.

Zornotzako Forjarien jauregia XX. mendeko industrializazio garaiko ikurretari bat da. Eraikinaren jabea Vusa eraikuntza enpresa da, baina Zornotzako Gazte Asanbladak okupatu egin zuen eraikina orain urtebete inguru.

Durangoko ELKARTEGIra goaz

- Adinekoen zerbitzua
- Zaindu
- Behargintza
- Euskara zerbitzua

Ekainaren 29tik aurrera



946 81 81 16
946 23 25 22



Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea



Saioa Agirre Arauko

13/13 epaiketan auzipetuta dago

ZORNOTZA | 1980

“13/13 auziak ez zuen zentzurik orain hamaika urte, eta zentzu gutxiago du gaur egun”

Uztailaren 12an, Agirrerren eta beste zazpi euskal herritarren aurkako epaiketa hasiko da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Behere aldekoa da, Zornotzakoa. Baina aitortzen du goialdera jotzen duela lasaitasun bila, Etxanora, Etxanok esangura berezia duelako Saioa Agirrerrentzat. Patxada topatzen du han. Eguntan, oraindino gehiago. Izan ere, uztailaren 12an Euskal Herriko zortzi herritarren aurkako epaiketa hasiko da Espainiako Auzitegi Nazionalan, eta Saioa Agirre izango da epaituetariko bat. Fiskaltzak 7 urteko espetxe zigorra eskatzen du harentzat.

Lehenengo eta behin, zelan zaude?

Sentimendu kontrajarri asko dut, kezka eta urduritasuna gehienbat. Alde batetik, kartzelan amaitzeko arriskuak ezinezona sortzen duelako nigan eta nire familiarengan. Eta, bestetik, dena berriro gogora ekarri behar horregaitik. Nire eginiko torturak epaitegian kontatu behar izatea gatx egiten zait, gogorra. Banekien egun hau ailegatu zena, horren beldur nintzen. Baina, aldi berean, beharizan handia daukat hau guzti hau amaitzeko. Urte hauetan hartu ditudan erabaki inportante guztiak egoera honek baldintzatu ditu, ama izatearena barne. Kostatu zitzaidan erabaki hori hartzea. Nire seme txiki biak munduko gauzarik ederrena dira eta haiek kezkatzen naute gehien.

Atxiloketatik hona 11 urte pasatu dira. Zein da gaur egungo egoeratik begiratuta egiten duzun interpretazioa?

2010ean atxilotu gintuzten eta garai hartan Ezker Abertzalea hausnarketa prozesu batean sartuta zegoen. Horren oinarrian, konfrontazio armaturik bako eszenatoki baten konfigurazioa zegoen, eta hor inportantea zen

Maitasun dosi handia jasotzen nabil eta horrek gogorarazten dit ez nagoela bakarrik; kaletik noala, jende pilo bat hurbiltzen zait

euskal presoaren parte hartzea. Euskal Herrian beti egon da presoekiko eta iheslarietarako elkartasun handi bat. Iruditzen zait estatua jabetzen zela horretaz, eta hortxe kokatzen dut gure aurkako operazio poliziala: eztabaida hura eta bake prozesua oztopatzea zuten helburu. Orain, hainbat eragile eta sindikatugaz batu gara, eta denok ondorio berera ailegatu gara: 13/13 auzia lekuz eta denboraz kanpora dago. Auziak ez zuen zentzurik orain

hamaika urte, eta zentzu gutxiago du gaur egun.

Badago aukerarik akordio bat lortzeko?

Auzipetuok prest agertu gara akordiorako oinarri bat lortzeko, baina ikusi dugu beste aldeak ez duela borondaterik gugaz berba egiteko. Dena dela, guretzat oso gatxa da akordio bat sinatzea. Akordio bat sinatzeak hainbat gauza eta ondorio onartzea suposatzen du. Eta hori gatxa da guretzat. Baina, era berean, auzipetuok honen inguruko hausnarketa egin genuen aspaldi, eta ikusi genuen akordioa apustu bat zela elkarbitzita demokratikoaren bidean.

Azken asteotan, zornotzarrek kanpaina ugari egin dute zuri elkartasuna adierazteko.

Oso hunkituta nago, eta berbek ez didate irten ere egiten. Oso eskertuta nago, inpresionatuta. Nire eta nire familiaren beharrikanak beste ezereen gainetik ipini dituzte. Egundoko maitasuna eta enpatia jaso ditut. Maitasun dosi handia jasotzen nabil eta horrek gogorarazten dit ez nagoela bakarrik. Kaletik noala jende pilo bat hurbiltzen zait, eta horixe bera gertatzen zait lantokian, nire ikasleen familiarekin, nire umeen ikastolan, Zornotzako eragileen artean eta beste hainbatez. Oso hunkituta nago.

Amorebonoen kanpainagaz "1.000.000 euroko eragin ekonomikoa" lortu gura dute

Zornotzako Udalak kanpaina berri bat hasi du herriko komertzioak bultzatzeko. 32.000 bonu kaleratu dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak 32.000 bonu kaleratu ditu herriko komertzioak bultzatzeko. Mota biko txartelak dira: 2.000 lehen sektoreari loturikoak, eta gainerako 30.000 txartelak komertzioei begirakoak. Bonuak 15 euroan eskuratu daitezke, eta 20 eurora

arteko erosketa egin ahalko da eurekin. Udalak 160.000 euro ipini ditu kanpainarako, eta Esti Martiartu zinegotziak azpimarratu du "1.000.000 euroko inpaktu ekonomikoa" eragin gura dutela herrian. Bonuak udaleko eta Zelaieta zentroko kutxazainetan eskuratu daitezke.



Esti Martiartu eta Ainhoa Salterain zinegotziak.



Martz grafitigileak agerraldia egin du asteon Zornotzako udal plazan.

'Martz' grafitigileak 2.000 eurotik gorako isuna jaso duela salatu du

Artistak dio udalak bere horma irudiak ezabatu dituela, baina beste batzuen lanak bere horretan utzi dituela

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Martzel Do Nascimento 'Martz' grafitigile zornotzarrek esan du 2.000 eurotik gorako isuna jaso duela udalaren partetik. Artistak "kontraesana" ikusten du erabaki horretan. Udalak kaleko artearen adierazpen batzuk "goraipatzen" dituen bitartean, "beste adierazpen batzuk ukatzen" dituela dio,

esaterako, kaleko hormak euskarri lez dituztenak. Artistak dio udalak bere hainbat irudi ezabatu duela, eta, oster, ez duela gauza bera egin beste egile batzuen irudiekin. 'Martz'-ek dio bere lanek ez dutela inorenganako errespetu faltarik agertzen, eta irudiak egiterakoan kontuan izaten duela horma pribatuetako jabeen oniritzia.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto

Elorrioko turismo bulego berria herria ezagutzera emateko prest

Turismo bulegoa Berrio-Otxoa kalean dago eta martitzenetik domekara egongo da zabalik

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko turismo bulego berriak bariku eguerdian zabaldu zituen ateak. "Elorriorentzat eta elorriarrentzat egun berezia da gaurkoa, turismo bulego berria inauguratuko dugu eta", esan zuen Alazne Mendizabal zinegotziak. Martitzenetik domekara egongo da zabalik

Berrio-Otxoa kalean zabaldu duten bulego berria, turistak zein herritarrak hartzeko prest. "Elorrio ezezaguna da askorentzat, eta gobernu taldearentzat oso garrantzitsua da herria ezagutzera ematea. Elorrio zoragarria da, ikusgarria. Eta, horregaitik, mundu guztia bertara etortzera animatzen dugu", esan

zuen Idoia Buruaga alkateak inaugurazio ekitaldian.

Horrez gainera, bai Buruagak baita Mendizabalek ere eskerrak eman zizkien bulegoa prest izateko lanean ibili diren Elorrioko Udaleko langile guztiei. "Eskerrik asko. Zuek egin duzue posible gaur hau zabaltea", nabarmendu zuen alkateak.



Alazne Mendizabal zinegotzia eta Idoia Buruaga alkatea.

Artisau eta sortzaileen azoka eta azoka ekologikoa domekan Elorrioren

Lehenengoa Eixuk antolatu du eta Urarka kalean izango da; bigarrena Elorrixak eta Marisatsak, aparkalekuan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriarrek azokaz beteriko domeka izango dute uztailaren 4a. Alde batetik, Urarka kalean, Eixu elkarteak antolatuta, artisau eta sortzaileen azoka egongo da. Elorrioko elkarteak bosgarren urtez antolatu du azoka, eta 22 artisau eta sortzaile batuko ditu. Gainera, etxeko txikienek Cecilia Pagani-

niren *Amparito Chou* ikuskizunagaz gozatzeko aukera izango dute.

Bestalde, Elorrixa Ekologi Taldeak eta Marisatsa elkarteak, udalaren laguntzagaz, besteak beste, Durangaldeko XXV. Nekazaritza Ekologikoaren Azoka antolatu dute. Hau ere domekan izango da, eta, guztira, 20 bat postu egongo dira Elorrioko aparkalekuan.

Berrizek eguneko arreta zentro bat izango du

Berrizko Udalak jakinarazi du 400.000 euro ipiniko dituela Adineko Zentro Berriaren proiektua gauzatzeko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ohar baten bitartez, EAJk eta PSE-EEK jakinarazi dute Berrizek eguneko arreta zentro bat izango duela. Alderdiek azaldu dutenez, prozesu parte hartzaile batetik irteneko beharrianari erantzun-gongo dio proiektu honek. "2017an, Berrizko Udalak 55 urtetik gorako pertsona guztiei zuzenduriko partaidetza prozesua ipini zuen martxan. Eta orain, hortik irteneko hiru behar nagusi betetzeko proiektua dugu esku artean", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak. Prozesuan azalduko beharrianak hauek dira: jubilatuen berri edo jubilaziotik gertu dauden pertsonentzat jarduerak dinamikoagoak planteatzeko gunea bat, egungo jubilatuen etxeak eskaitzen dituen jardueretarako toki bat, eta mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun arineko egoeran dauden adinekoei eguneko arreta emateko zentro bat.

Hori horrela, Berrizko Udalak Adinekoen Zentro Berriaren proiektua Jubilatuen Egoitzan eta Liburutegi Zaharreko espazioan

zentratzea erabaki du, 400 metro karratuko eremuan. Eta hori egiteko, 400.000 euro ipiniko ditu.

Bestalde, udalaren kompetentzia ez den arren, anbulategi zaharrean eguneko zentro bat egiteko aukera egon daitekeela, eta, arduradunekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiagaz, aukera hori balora-

Adineko Zentro Berriaren proiektuak 400 metro karratuko gunea izango du

tzeko prest daudela azaldu dute EAJ eta PSE-EEK zinegotziak.

Berrizko Podemos Ahal Duguko kideek begi onez ikusi dute EAJk eta PSE-EEK oharrean azalduko. "Pozten gara, pentsiodunen mugimenduak jasoriko 900 sinadurek alderdi biak gogoetara bultzatu dituzte eta. Gu prest gaudela Berrizko herriaren eskaera eta beharrianak betetzen laguntzeko", esan du David Jimenok.

Atxondon abuztuan hasiko dira BI-3336 errepidea zeharbide bihurtzeko lanak egiten

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuan hasiko dira BI-3336 errepideko lanak. Lan horien asmoa errepide zati hori zeharbide bihurtzea izango da. Udaletik jakinarazi dutenez, 800.000 euroko aurrekontua dute eta Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko ditu lanak. Sei hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute.

Horrez gainera, proiektu horri eskerrak bidea oinezkoentzat "askoz ere atsegina" izango dela esan dute udaletik, eta urratsak emango dituztela mugikortasun seguru eta jasangarriari bat lortzeko.



Cemosatik Santa Katalinarainoko tartea konponduko dute.

Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
rueda@segurosbilbao.com

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde
(Susar)



TAXIAK EZ DIRA INOIZ GELDITZEN
Xabier Montoia
(Susar)



AITAREN ETXEA
Karmele Jaió
(Elkar)



DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi
(Susar)



NIKKANTATU ETA DANTZA EGITEN DU MENDIAK
Irene Sola
(Alberdania)

“Kanpoko espezieen monokultiboagaz jarraitzea erabaki anakronikoa da”

Orain hilabete gutxi Durangaldeko Basoak ekimena jaino da; baso autoktonoak berreskuratzea du helburu

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Durangaldeko Basoak ekimenaren atzean eskualdeko hainbat herritako lagunak daude. Eukeni Bastida da horietariko bat. "Inguruko egoerak sorturiko ezinegonak" bultzatuta ekin diote bideari, Bastidak azaldu duenez. Ekimenera batu gura dutenek durangaldekoBasoak@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Zein da Durangaldeko basoen gaur egungo argazkia?

Durangaldeko zuhaitzen %80 kanpoko espezieekin eginiko monokultiboa da eta horrek kalteak eragiten ditu. Lau pinu belaunaldi daramatzagu, eta lurra pobretzen dabil. Normalean, produktu kimikoak erabiltzen dituzte monokultibo horiek aurrera ateratzeko, 'ongarriak' deitzen dieten arren. Baina arbolak ahulduta hazten dira eta gaixotu egiten dira. Azkenengoz, 2018an, banda marroia ondoak gogor jo zuen eta horren aurrean produktu kimiko gehiago botatzen da. Zirkulu horretatik irten behar dugu.

Horren aurrean, kudeatzeko molde zaharrak baztertu eta berriak sustatu behar direla uste duzue?

Bai. Basoan esku hartu barik, inguruko lurretan haritza litzateke nagusi. Eta pinuagaz lez, irtenbide ekonomiko bat atera ahal izango litzateke, zainketa eta aukeraketa prozesu bat jarraitu ondoren. Oreka bat behar da, baso autoktonoak sustatuz eta industriara bideratutako lursailak uztaiz. Bertan egoteko leku atseginak ere behar ditugu.

Iurretako Udalak Bizkaiko Aldundiari eskatuko dio udal jabetzakoak diren lurretan baso autoktonoak berreskuratu ditzan. Mozio baten bitartez eginiko eskaria onartu du udalbatzak. Zelan baloratzen duzue hori?

Oso positiboa da. Horrek esan gura du jabetu direla egoeraz. Kanpoko es-

Gauden egoeran, epe ertainean onurak lortzeko, berehala hasi behar dugu martxan



pezien monokultiboagaz jarraitzea erabaki anakronikoa da. Beste udal batzuetan ere sartuko dugu mozioa. **Eukalpto geroago eta gehiago zabaltzen dabil eskualdean.**

Bai. Dena dela, orain 100 bat urte Kaliforniatik (AEB) ekarritako Montereiri pinua dugu nagusi. Paisaia horretara ohitu gara, geure egin dugu.

Ez dugu gura ondorengoei berdina gertatzerik eukalptoagaz.

Zuen eskaria bat dator 2019ko klima larrialditik eratorritako ekintzekin.

Bai. Baso naturala CO2 biltegia da eta ezin liteke larrialdi egoera ezarri eta ezer ez egin. Ganorazko arbola-diak tenperatura eta ziklo hidrikoak erregulatu, eta airea garbitzen du.

Birmoldaketa azkarra eskatu duzue.

Bai. Baso bat ez da egun batetik bestera sortzen. Gauden egoeran, epe ertainean onurak lortzeko, berehala hasi behar dugu martxan. Zer utzi gura dugun pentsatu eta erabakiak hartu behar dira. Naturak bere ziklo eta denborak ditu, baina 10-12 urtean beste inguru bat izan genezake.

15.000 eurora igo dute hezkuntzako diru laguntzetarako poltsa lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak zabaldu du 2020-2021 ikasturtean hezkuntzak eragindako gastuei aurre egiteko diru laguntza eskatzeko epea. Herriko familiei zuzenduriko deialdia da eta uztailearen 8ra arte egin daiteke eskaria. Aurten 15.000 euroko diru poltsa lotu dute, iaz baino 3.000 euro gehiago. Familia-unitatearen errentaren, kideen kopuruaren eta ardurapeko seme-alaben edo adingabeen ikasketa-mailaren arabera zehaztuko da diru kopurua: Haurreskola (150 euro), Haur Hezkuntza (45 euro), Lehen Hezkuntza (45 euro) eta DBHko 1. eta 2. maila (45 euro) eta DBHko 3. eta 4. maila (75 euro). Eskara elektronikoki aurkeztu behar da HAZn.

Zaldibarko jolastokiaren aldeko batzordeak salatu du urtebetean ez duela jaso udalaren "inongo erantzunik"

Orain urtebete, jolastokiaren aldeko batzordeak proiektua berrekiteko 1.033 sinadura aurkeztu zituen Zaldibarko Udalean

ZALDIBAR • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain urtebete, Zaldibarko Udalean 1.033 sinadura aurkeztu zituzten jolastokiaren proiektua berrekitea eskatzeko, eta joan zen astean dinamikaren bultzatzaileek elkarretaratzea egin zuten oraindino "inongo erantzunik" jaso ez dutela salatzeko. "Urtea beteko da 1.033 sinadura aurkeztu genituenetik proiektuaren alde. Plenora jo dugu eta udal gobernuko zinegotzietatik sinadura horien kopia bana eman diegu, kaxaren batean galduta izango dutelakoan", salatu zuten jolastokiaren aldeko batzordeak.

2018an, Zaldibarko hezkuntza komunitateak *Amesten dugun jolastokia eraikitzen* prozesua martxan ipini zuen, eskola publikoko patioa eta inguruko belargunea atontzeko.

Baina 2019ko udal hauteskundetan izandako udal gobernu aldaketaren ondorioz, proiektua "geldi" dagoela salatu dute hainbat bider eskola komunitatetik, baita joan zen

"Borrokan gauden sinisten dugun proiektuaren alde, borrokan beharrezkoa den proiektuaren alde"

astean ere. "Ordutik, borrokan gauden sinisten dugun proiektuaren alde, borrokan beharrezkoa den proiektu baten alde, borrokan 1.000 zaldibartar baino gehiagoren sinadurak batu dituen proiektu baten alde", jakinarazi dute.



Joan zen egunean egin zuten elkarretaratzea Zaldibarren.



Joan zen asteburuko agerraldia, Luzia Urigoitiaren inguruko muralaren aurrean.

Auzitegi Nagusiak Urigoitiaren eta Garateren muralak kentzeko agindu du

Horma irudi biak osasun zentroa dagoen eraikinetako fatxada banatan daude

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Luzia Urigoitiari eskainiriko murala eta Ruben Garateri buruzko olana kentzeko agindu dio udalari. Biak Otxandioko osasun zentroa dagoen eraikinetako fatxadetan daude. Urigoitiaren gaineko murala udalaren ekimena izan da. Olana ez zuen udalak ipini, baina haren ondoan plaka bat ipini zuen gerora.

Luzia Urigoitia 1987an hil zuten, tiroz, Guardia Zibilak Trintxerpen (Pasaia, Gipuzkoa) eginiko sarekada batean. Ruben Garate 2000. urtean hil zen, auto istripuan, pre-

so bati kartzelan eginiko bisitatik bueltan zetorrela.

Epai honen aurretik, Gobernuaren subdelegaritzak eta Bilboko Epaitegiak murala eta olana kentzeko eskatu zioten udalari. Honek errekurritu egin zuen erabaki hori Auzitegi Nagusian, baina atzera bota zioten errekurtsioa.

Garateren olana ez erretiratuta "aukera ideologiko jakin batekiko atxikimendua" ikusten du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Urigoitiaren murala "talde terrorista bateko kide bati eginiko omenaldia" dela jasotzen du epaiak.

Agerraldia epaia salatzen

Joan zen asteburuan, hainbat herritarrek agerraldia egin zuten horma irudi horiek dauden tokian epai hori salatzen. "Egiaren, egiaren alde baten edo alde baten egiaren ukapenaren aurrean gaude", azaldu zuten. "Egia oso aitortzeko eta erantzukizun politikoak onartzeko garaia" dela eta "aldeetako baten sufrimenduen ukapenean oinarrituriko justiziarik ez dagoela" nabarmendu zuten, eta aurrerantzean ere "etengabe" ahaleginduko direla "egia osoa" ezagutarazten.

Jaien ordeztu, uztail osoa iraungo duen kultur eskaintza antolatu dute Otxandion

'Biziguraz betie' izeneko programak dantza, antzerki eta musika emanaldiak eta umeentzako ekintzak jasotzen ditu



Puro Relajo taldeak uztailaren 30ean eskainiko du kontzertua Otxandion.

OTXANDIO • J.D.

Aurten ez da santamaña jairik egongo Otxandion. Udalak bat egin du jai batzordeak harturiko erabaki horregaz. Oraindino ez dute jaiak normaltasunez antolatzeko aukerarik ikusten. Horren ordez, udalak *Biziguraz betie* izeneko ekitaldi sorta antolatu du. Ekitaldiak uztaileko egun askotan banatuta egongo dira.

Uztailaren 17a umeei eskainitako eguna izango da eta askotariko jokoak egingo dituzte plazan eta Mainondon. Hurrengo egunetarako, Urduri dantza taldearen saioa,

hilaren 18an, eta *Kale Gorrian* izeneko kale antzerkia, uztailaren 19an, nabarmendu daitezke.

Uztailaren 25ean hainbat ekimen egongo da. Eguerdian, 1936ko bonbardaketan hildakoak gogoratuko dituzte. Segidan, udal bandak eta Arabako bandak musika kontzertua eskainiko dute eta, arratsaldean, Iñaki Palacios & The Gael's taldeak doinu irlandarrak eta euskaldunak uztartzen dituen *Baltik* lan berria aurkeztuko dute.

Azkenik, Puro Relajo taldeak kontzertua eskainiko du uztailaren 30ean, 20:00etan.

Izurtzako semaforoek ez dute guztiz konpondu abiaduraren arazoa

Sistema berriagaz ibilgailuen abiadura gutxitu dela diote udaletik, baina denek ez dutela semaforo gorria errespetzen

IZURTZA • J.D.

Hilabete inguru joan da Izurtzako semaforo berriak martxan daudenetik. Denak koordinatuta daude, 'onda berdea' izeneko sistemagaz. Horrek autoen "abiadura gutxitzea" ekarri duela dio Lorea Muñoz alkateak, baina arazoa ez

dela "guztiz konpondu", gidari batzuek ez dutelako semaforo gorria errespetatzen. Ondorioz, batzar bat eskatu dute Aldundian. Bertan, arazoaren berri eman eta radar bat edo bestelako neurri batzuk hartzeko eskatuko diote errepede sailari.



BI-623 errepedea Izurtzan.

Herriko Tabernako lanak martxan, eta berokuntza sistema berrikoak hastear

Udaleko hainbat eraikinetan sistema berria ipiniko dute

MAÑARIA • J.D.

Mediku kontsultategi berriak eguaztenean zabaldu zituen ateak, kokaleku berrian. Horrela, aldaketa horren menpe zeuden beste proiektu batzuei ekiteko modua du orain udalak. Herriko Taberna eraberritzeko eta handitzeko proiektua da bat, lehen kontsultategiarena zen espazioa tabernara gehituko dutelako. Horregaz batera, udaleko hainbat eraikinetan aerotermin bidezko berokuntza sistema ipintzen hasiko dira uztailaren 12ko astean; tartean, Herriko Tabernan bertan.

Aerotermin sistemak propano bidezkoa ordezkatzeko du. Herriko Tabernan, udaletxean, liburutegi zaharrean eta haurreskolan

ipiniko dute berokuntza mota berria eta proiektu energetikoetan aditua den Alet enpresa da lanak

Propanoa kendu eta ingurumen aldetik jasangarriagoa den sistema ipini gura dute

egiteko arduraduna. Sistema berriagaz, udalak dirua aurrezteko aurreikusten du. Horregaz batera, ingurumen aldetik jasangarriagoa den berokuntza sistema batera urratsa eman gura dute, udal arduradunen esanetan.

Mallabiko boulder berria ipintzen hasi dira kultur etxearen azpiko gela batean

MALLABIA • J.D.

Mallabiak eskalada praktikatzen du izango du laster. Astelehen honetan hasi dituzte lanak, eta udalak aste

15.000 euroko inbertsioa duen proiektua aste bi barru amaitzea aurreikusten du udalak

bi barru amaitzea aurreikusten du. Kultur etxearen azpiko aldean dagoen gela batean dabilta eraikitzen azpiegitura berria. Hiru metro eta erdiko garaiera eta bederatzi bat metroko luzera izango ditu. Proiektuak 15.000 euroko inbertsioa du eta gazteek eskatutako proiektua dela azaldu du Igor Agirre alkateak.

Udalak 465.244 euro ipiniko ditu Astolako igerilekuen galdara aldatzeko

Hobekuntza hori "instalazioak etenik barik dituen akatsengaitik" egin behar dela diote

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Abadiño Udalak 465.244 euroko aurrekontu aldaketa onartu du Astolako igerilekuetako galdara sistema aldatzeko. Beraz, igerilekua-
ren estalkia berrizteko gastuari galdararena gehitu beharko zaio. "Azterlan tekniko bat kontratatu zen, eta sistema ebaluatu ondoren

instalazioaren funtzionamendu egokia bermatzeko soluziorik onena zehaztu da", dio gobernu taldeak.

Oposiziotik, EH Bilduk dioenez, "udalaren jarraipen eta mantentze eza" izan da galdara aldatu behar-
raren arrazoa. "465.000 euro hauei estalki berria ipintzeak ba-

lioko dituen 1.300.000 euroak batu behar zaizkie", dio koalizioak.

Bestalde, udalak mantentze-
lanetako teknikari postua sortuko du. Udal-eraikinak, hiri-instalazioak eta igerilekuak mantentzeaz arduratuko da, baita obra-brigadaren edo ur-zerbitzuaren lanak kudeatzeaz ere, besteak beste.



Abadiño Udalaren igerilekuak.



Proiektuak Zelaietatik igarotzen den N-636 errepideko 800 bat metreri eragingo die.

Zelaietako errepideko lanak uztailan esleitu gura dituzte

Kontratazio-mahaiak aukeratuko enpresak beharrezko dokumentazioa bidaltzen duenean esleitu dituzte lanak

ABADIÑO • J.D.

Muntsaratz eta Zelaieta batzen dituen errepideko lanak uztailan esleitzeko asmoa du Abadiño Udalak. Kontratazio mahaiak enpresa bat aukeratu du eta beharrezko dokumentazioa jasotzeko zain daude. Horren ondoren, lanak opor ostean hasiko lirateke, irail inguruan. Halaxe iragarri zuen Javier Crespo alkateordeak

legegintzaldi erdiko balorazioa egiteko eskaintako prentsurrekoan.

Zelaietatik Muntsaratzera bitartean N-636 errepideko 800 metreri eragingo diete lanek. Besteak beste, espaloiak handitzeko, argiteria berrizatzeko eta ibilgailuen abiadura gutxitzeko neurriak aurreikusten ditu proiektuak.

KULTURA SOTSOTE

UZTAILA



9 UN SUEÑO POSIBLE
FILM EMANALDIA
🕒 22:00



23 OLATZ SALVADOR
KONTZERTUA
🕒 18:30



DUPLA
KONTZERTUA
🕒 20:30



30 ERLAUNTZA
FILM EMANALDIA
🕒 22:00

ABUZTUA 14-15
MANARIKO ANDRA JAI XEK
MARI 2021

Durangoko L'atelier dantza eskolari aitortpena egin diote bere lanarengaitik eta lortu dituen sariengaitik

Dantza eskolak urteetan eginiko ahalegina aintzatetsi gura izan du Durangoko Udalak



Martitzenean egin zuten ekitaldia.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

L'atelier eskolak 15 urte daramatza Durangon mota askotariko dantza estiloak gazteei erakusten. Denbora honetan, txapelketa askotan parte hartu dute eta makina bat sari pilatu dituzte. Esaterako, dantza ikuskizunak eta txapelketak antolatzen espezializatuta dagoen Dancing Stars Events-ek dantza eskolarik onenaren saria eman zion L'atelierri maiatzean Marbellan eginiko sari banaketan. Ekitaldi berean, Unai Celis dantzari gaztea ere saritu zuten. Gaur egun, Celis Suediako dantza eskola nazio-

nalean trebatzen dabil beka bati eskerrak.

Horien guztien berri eman zuten Durangoko Arte eta Historia Museoa eginiko ekitaldian. Durangoko Udalak ere urteetan eginiko lana aintzatetsi gura izan

Maiatzetik hona, Espainiako dantza eskolarik onenaren saria irabazi du, besteak beste.

zien. Oihane Azconizagak, L'atelierreko zuzendariak, diploma bat jaso zuen eskola guztiaren ize- nean, Ima Garrastatxu alkatearen eskutik. Julios Rios alkateordeak beste diploma bat eman zion Unai Celis dantzariari.

Politikan

Mariam Bilbatua
EH- Bildu



UME ETA GAZTEEN PARTE HARTZEA

EH Bilduko kideok Durango demokratikoa, inklusiboa, anitz-tza... eraiki nahi dugulako oinarritzko dugu ume eta gazteen parte hartzea bermatzea, izan ere, partaidetza prozesuek ulermen espazio partekatua elkarrekin eraikitzeak aukera ematen digute: besteak entzuteko eta errespetatzeko espazioak, norberak bere iritzia eta nahiak besteekin partekatzeko eta kontrastatzeko aukerak eta iritzi desberdinen aurrean sortu daitezkeen interes kontrajarririk eta gatazkak ebazteko estrategiak ikasteko aukerak.

Horregatik, espazio anitzetan zein adin talde desberdinen arteko harremanetan ekintza mugatua izateari utzi behar zaio: familian, gelan, auzoan, herrian edota heldu eta gazteekin... Horieta guztietan, parte hartzea da txertatu beharreko ekimena.

Umeen Kontseilua eta Gazte Foroaren parte hartze prozesuen emaitzen aurkezpenen jasotako informazioek eta iritziek baieztatu zuten prozesua martxan jartzera eraman gintuzten ideiak: ume eta gazteen begiradak duen garrantzia eta gaitasuna proposamenak helarazteko.

Beraien parte-hartzeak errealia izan behar du, aipatutako espazio eta harremanetan hauen ahotsa entzun eta aintzakotzat hartuko den bermea izan behar dutelarik. Horrela bakarrik bermatuko dugu aitoritu behar zaien parte hartze eskubidea, hots, beraien iritzia emateko eta beraien ahotsa aintzakotzat hartzeko eskubidea. Hori dela-eta, Udala Gobernuak Umeen Kontseiluko partaideen aurrean konpromisoa hartu zuen beraien proposamenak aztertze eta bideratzeko.

Durangaldea asteen

Elorriok bat egin du Berdintasunerako Lurralde Sarearen programagaz

Elorrio | Elorrioko Udalak aho batez onartu du Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Lurralde Sarean sartzea. Udalekoen berbetan, sareko gainerako erakunde, instituzio eta administrazioekin batera berdintasunaren arloan aurrera egiten jarraitzeko eta berdintasun politika hobekuntza aukera egongo da.

272 izan da zenbaki saritua Elkartasun Biltegiak eginiko errifan zozketan

Durangaldea | Durangaldeko Kontseilu Sozialistak sorturiko Elkartasun Biltegiak zozketa bat ipini zuen martxan ekainean, eta zozketak badu irabazlea. 272 zenbakia da Iruko jatetxean lagun birentzako afaria eskuratu duena. Zenbaki horren jabea agertu ezean, 1.353 da ordeko zenbakia.

Adinekoak, Zaindu, Behargitza eta Euskara zerbitzuak Elkartegira eraman dituzte

Durango | Durangaldeko Mankomunitateak Durangoko Elkartegian zentralizatu ditu zerbitzu hauek: Adinekoak eta Zaindu, Durangaldeko Behargintza eta Euskara. "Erdigunean eta garraio publikotik hurbilago dagoen egoitza berriak Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea ekarriko du", adierazi dute Mankomunitateak ohar batean.



Mercadonak uztailaren 29an zabalduko du Iurretako supermerkatu berria

Iurreta | Valentziako Mercadonak supermerkatu kateak uztail amaieran zabalduko du Iurretako supermerkatu berria Mallabien industrialdean duen orubean. 1.500 metro karratu izango ditu eta 40 bat langilek lan egingo dute bertan, Mercadonako iturrien esanetan.

Supermerkatu hau Mercadonak Durangaldean martxan ipiniko duen lehenengoa izango da. Aurretik, 2016an, merkataritza-gunea Abadiñon eraikitzeak asmoa izan zuten, baina, azkenean, bertan behera utzi zuten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

MAKALLAU
saltsan

saltsan
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta abar.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.


Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329




ZUK
Zaldibarko Uda Kulturala
Ekainaren 23tik Uztailaren 25era
2021

The poster features a dark blue background with various yellow and white icons related to music and culture, including a trumpet, musical notes, a treble clef, a book, a person holding a book, and two theatrical masks (one yellow, one red).



**Zaldibarko Udarak
sekula ezagutu bako jai hauetan be,
ondo pasa eta arduraz jokatu!**



Zaldibar
Elizateko
Udala

The banner shows a photograph of a building with a balcony, overlaid with a green and white checkered pattern. The text is in white and bold. The logo of Zaldibar Elizateko Udala is in the bottom right corner.

Zaldibar 2021

Uztailaren 2a, 3a eta 4a

Hainbat ekitaldi. Eitzagan.

Uztailaren 2a

19:00 'Petresku etzi ez etsi' umeentzako bertso antzerkia. Udaletxeko plazan.

19:00 Gazte mailako pilota partiduak. Olazar pilotalekuan. Zaldua Pilota taldeak antolatuta.

20:30 'TIO TERONEN SEMEAK' taldearen eskutik, euskal dantzak. Zaldua plazan.

Uztailaren 3a

10:30 I. Satamarinazar kronoigoera lasterketa herrikoia. Udaletxetik.

18:00 Nikaraguako dantza erakusketa. Udaletxeko plazan.

Uztailaren 4a

08:30 - 15:00 XXXVII Argazki Rallya: izen-ematea. Liburutegi zaharrea eta hamaiketako eskolako pilotalekuan.

18:00 **Bertso saioa. Bertsolariak: Unai Iturriaga, Miren Artetxe, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.** Zaldua plazan.

Uztailaren 5a eta 6a

10:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00 Skate eskola 6tik 12 urtera bitarteko umeentzat. Eskolako jolastokian.

Uztailaren 9a

17:00 IPUIN DANTZA Ipuin antzerki musikatua. Udaletxeko plazan.

20:00 'Euskañolitis' umorezko bakarriketa. Udaletxeko plazan.

Uztailaren 10a

12:00 Show cooking, sukaldaritza tailerra. Udaletxeko plazan.

Uztailaren 11

19:00 Julen Axperen bakarriketa. Zaldua plazan.

Uztailaren 16a

22:00 Pilota partiduak. Olazar pilotalekuan. Zaldua Pilota taldeak antolatuta.

Uztailaren 17a

18:00 'PERLATA + IHESKIDE' taldeen musika kontzertua. Olazarren.

Uztailaren 18a

11:00 Goitibehera jaitsiera. Goierren.

16:00 Goitibehera txikia.

17:30 ALURR dantza taldea. Olazarren.

Uztailaren 19a

19:00 'Victoria Moon eta lesbianak', antzerkia. Olazarren.

Uztailaren 20a

19:00 XXXVII Argazki Rallya, emanaldia eta sari banaketa. Liburutegi zaharrea.

Uztailaren 23a

22:00 Deabru beltzak taldearen 'SU AFEU', sua eta perkusioa kale ikuskizuna. Euskal Herria kaletik udaletxeraino.

Antolatzaileen gomendioak

Zaldibarko Udalak hainbat gomendio eta informazio eman du ekitaldiei begira:

- Karpako ikuskizunetara sartzeko beharrezkoa izango da aurretik sarrera eskuratzea.
- Ekitaldiek iraun bitartean ikus-entzuleek jesarrita egon beharko dute.
- Eremuaren barrualdera ezin izango da edari alkoholdunik sartu.

Honako eragile hauek aritu dira egitarauaren osaketan:

- Zaldibar Elizateko Udala.
- Castet elkarte
- Zaldua Kirol Elkarte (pilota)
- Zaldibarko Txosnagunea (Gaztetxea eta Dominika)
- Zaldibarko Jendeak
- Ilargi argazki taldea
- Zaldibarko dantza taldea
- Zaldibarko guraso elkarte.



kiki
Euskañolitis jaialdi

Euskal Herria Etorbidea, 30
Zaldibar
Tel.: 946 047 739

[kiki.zaldibar](https://www.facebook.com/kiki.zaldibar)

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR

BARATZA FRUTADENDA URDAITEGIA

Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia

PAULAREN ZOKOA
KAFE
EL RINCON DE PAULA

07:00etatik
aurrera zabalik

Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar

Paularen Zokoa

CAPELO

Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema

ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behea
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO

eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658

Tio Teronen Semeak taldeak ikuskizuna eskainiko du Zaldua plazan Zaldibarko Uda Kulturalaren egitarauaren barruan

Jai batzordeak hainbat ekitaldi antolatu du udalagaz batera. Herriko hainbat eragile eta elkartek parte hartuko dute ekitaldiak antolatzen



Tio Teronen Semeak.

ZALDIBAR • JONEGUENETXEA

Zaldibarko jai batzordeak kultur ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu du. ZUK, Zaldibarko Uda Kulturala izena ipini diote. Ekainaren 23an ekin zioten egitarauari, eta uztailaren 23ra bitartean izango da. Jai batzordeko kideek denerik prestatu dute: kirol eta musika jarduerak, sukaldaritza-tailerra, umeentzako ekintzak... Udalaz gainera, Castet elkarteak, Zaldua kirol elkarteak (pilota), Zaldibarko txosnagunea (Gaztetxea eta Dominika), Zaldibarko jendeak, Ilargi argazki taldea, Zaldibarko dantza taldea eta Zaldibarko Guraso Elkarteak aritu dira egitaraua antolatzen.

Gaur, uztailak 2, *Petresku etzi ez etsi* umeentzako bertso antzerkia

ikusgai izango da, udaletxeko plazan. Zaldua pilota taldeak gazte mailako pilota partiduak antolatu ditu. Zaldua plazan, Tio Teronen Semeak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du.

Guraso elkarteak umeentzako skate eskola antolatu du uztailaren 5erako eta 6rako

Guraso elkarteak umeentzako skate eskola antolatu du uztailaren 5erako eta 6rako. Guraso elkarteak umeentzako ekitaldi berri bat antolatu gura izan du eta skate eskola

proposatu du. "40 ume apuntatu dira. 6tik 12 urtera arteko umeei skatean ibiltzen erakutsiko diete", azaldu du Javier Vidal Zaldibarko kultur administrariak.

Ekitaldi asko kalean direnez, ez da sarrerarik behar, baina jesarrita egotea bai. Beraz, tokia bete arte jesarri ahalko da. "Euria egiten badu, kaleko ekitaldiak eskolako pilotalekura lekualdatu daitezke", gaineratu du Vidalek. Karpan egiten diren kontzertu eta antzerki-tarako, ostera, sarrera behar da.

Goitibeherak Goierri

Aurtengo egitaraurako, Goierri auzoko goitibehera jaitsiera berreskuratuko dute. Aurtun ez da auzoko jairik izango. Hala ere, goitibehe-

ren tradizioa berreskuratzea erabaki dute, hamalau urteren ondoren. Uztailaren 18an izango da eta Goierri auzotik Solozabalera egingo da, banaka, binaka edo taldeka. Goitibehera Txikia ere antolatu

Goitibeheren tradizioaren berreskuratzea erabaki dute hamalau urteren ondoren

dute, aldats "laburrago eta errazago" batean. Umeentzako enpresa batek antolatu du. Helduek norbere goitibehera eraman behar dute. Honenbestez, goitibeherak pres-

tatzen hasteko deialdia egin dute Zaldibarko txosnagunetik, gazteak zein ez hain gazteak animatuz. Zaldibarko Goierri auzoko jaiak dira data horietan, hain zuzen ere. Izaera herrikoa izateko helburuagaz berreskuratuko dute jaitsiera, eta, beraz, antolatzaileek iragarri dute ez dituztela jaitsierak kronometratuko. Bestalde, metalezko gurpilik ez erabiltzeko eskatu dute, "errepidea ez hondatzeko".

Egitarauagaz amaitzeko, Deabru Beltzak taldearen *Su Afeu* ikuskizuna etorriko da Zaldibarrera. Sua eta perkusioa uztartzen dituen taldea da. Kalejira ohikoa baino laburragoa egingo dute eta udaletxe aurreko plazan ekitaldia egingo dute suagaz eta perkusioagaz.

MUELLES
ZALDUA S.L.



MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 · Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

SIKULAN Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA



C/ Zubiaurre 5 · E-48250 Zaldibar · Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 · sikulan@sikulan.com



Sorgin
TABERNA

Izan aske,
izan sorgin.

udan kultura martxan



uztailaren 1etik 25era

2021



Zornotza 2021

Uztailaren 1a

20:00 Monolokos Zornotza Aretoan.

Uztailaren 2a

18:00 'Zientzialariak' Sun Magoa Zornotza Aretoan.

20:00 Blanco y en botella Bideaurren

21:00 Anne Lukin, Nerea Rodriguez Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 3a

9:00 Mendi igoera, Urgozotik

18:00 Urbeltzen Dantza Ganbara Amorebieta IV Frontoian.

20:00 Four Seasons Ixerren.

21:00 Olatz Salvador Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 4a

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Familientzako ekintzak: parkea eta tailerrak. Larreako Goiko eskolan.

20:00 Maria Vaquerizo Zubipunten

Uztailaren 8a

20:00 The Dignity Road Zornotza Aretoan.

Uztailaren 9a

19:00 Bertso saioa: Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Jone Uria Amorebieta IV frontoian.

20:00 Julio Veiga Boroan.

21:00 Xabi Solano Maiza & Kimua Dantza Kolektiboa Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 10a

10:00 Urgozo Rugby taldearen partidua Larrea Rugby zelaian.

12:30 'Mr Frack' Xabi Larrea Zornotza Aretoan.

18:30 Soinutxikie Amorebieta IV frontoian.

20:00 Onintze San Miguel de Dudean.

21:00 ETS En Tol Sarmiento Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 11

10:00 Xake Txapelketa XXXIX. Agustín de Zamakona Memoriala Gure Kirolak frontoian.

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Familientzako ekintzak: parkea eta tailerrak Larreako Goiko eskolan.

12:30 Grafiti tailerra Jauregiabarria aparkalekuan.

20:00 Invictus Zornotza Aretoan.

20:00 Supercremalleras Ogenbarrenan.

22:00 'Akelarre Foc' Lekittoko Deabruak Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 14a

10:00/17:00 Eskoletako entrenamendu-topaketak federatuen finalak Amorebieta IV frontoian.

Uztailaren 15a

20:00 'Erlauntza' Vaiven Zornotza Aretoan.

Uztailaren 16a

18:00 'Etxerik txikiena' Yarleku Zornotza Aretoan.

20:00 Kittu Bernagoitian.

20:00 Kontzertuak (Zornotzako kuadrillak eta Zotxote)

Uztailaren 17a

11:00 Euskal Herriko Artzain Txakurren txapelketa Jauregiabarria parkean.

20:00 Eztandap Andrandin.

20:00 'Jantzari: Tradizioa eta parekidetasuna' Zornotza Aretoan.

21:00 STR Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 18a

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Familientzako ekintzak: parkea eta tailerrak Larreako Goiko eskolan

12:30 Udazken txistulariak eta Inun Amorebieta IV frontoian.

20:00 'Non dago Mikel?' filma Zornotza Aretoan.

20:00 Humberto Luis Jauregizaharren.

Uztailaren 20a

17:00 Piragua jaitsiera Ibaizabal errekan.

Uztailaren 21a

20:00 Ane Lindane eta Raquel Torres (Zornotzako koadrilak eta Zotxote)

Uztailaren 22a

20:00 'Somos la ley' Barsanti Amorebieta IV frontoian.

Uztailaren 23a

18:00 'Kotondarrak' Anita Maravillas Zornotza Aretoan.

19:00 'Gazte' Hika teatroa Amorebieta IV frontoian.

20:00 Inun Euban.

20:00 Kontzertuak (Zornotzako koadrilak eta Zotxote)

21:00 Zornotzako musika banda Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 24a

18:30 Triki Piu Amorebieta IV frontoian.

20:00 Jon eta Iratxe Zubizabalan.

21:00 Amak Jauregiabarria aparkalekuan.

Uztailaren 25a

10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00 Familientzako ekintzak: parkea eta tailerrak Larreako Goiko eskolan.

20:00 Orband Secret Etxanon.

20:00 Bertso saioa (Zornotzako koadrilak eta Zotxote)

Abuztuaren 14a

18:00 'Txoriak txori' Sarini Zirko Etxanon.

Irailaren 5ean

20:00 'Gelajauziak' Kukai Euba



ASTE BITARTEKO MENUA, ASTEBURUKO MENUA, MENU BEREZIA ETA KARTA

San Migel Dueda auzoa | AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033



Tel.: 94 673 15 57
Luis Urrengoetxea Hiribidea,
11 Amorebieta-Etxano



Amorebieta / Etxano

Tel.: 94 673 47 58
San Juan Kalea 1,
Amorebieta-Etxano

'Jantzari, tradizioa eta parekidetasuna' dokumentala proiektatuko dute Zornotza Aretoan, uztailaren 17an

Dozenaka kultur ekitaldigaz girotuko dute Zornotza hurrengo asteetan

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Uztaila indartsu dator Zornotzara. Jairik barik, baina herritar guztiei begirako kultur eskaintzagaz. Udalak Kultura Martxan egitaraua antolatu du. Ekitaldi kulturalak

uztailaren 25era bitartean egingo dira, eta kontuan hartuta eurentariko asko eremu zarratuetan egingo direla, udalak gogorarazi du ezinbestekoa izango dela sarrera alde aurretik eskuratzea. Interesa

En Tol Sarmiento, Olatz Salvador, Xabi Solano eta Amak taldeek joko dituzte kontzertuak

dutenek ekitaldi bakoitzari dagokion sarrerak eskatu behar dituzte. Gero, zozketa baten bitartez erabakiko dute sarreren onuradunak nortzuk diren.

Egitarauan nabarmentzen diren ekitaldietariko batzuk musikari loturikoak dira. Besteak beste, En Tol Sarmiento, Olatz Salvador, Xabi Solano eta Amak taldeek joko dituzte kontzertuak. Bertsozaleak direnek Andoni Egañaren, Aitor Sarriegiren, Unai Iturriagaren eta Jone Uriaren saioaz gozatu ahalko dute. Umeentzako ekitaldiei buruz ere badago zer esan. Magia eta zien-

tzia bateratzen dituen ikuskizuna, Yarleku konpainiaren *Etzerik txikiena* antzezlana edo Anita Maravillasen *Kotondarrak* egongo dira ikusgai. Gazteei begira ere, beste horrenbeste. Zornotzako kuadrillek piragua jaitsiera eta *Non dago Mikel?* dokumentalaren proiektzioa antolatu dituzte.

Zornotzako auzoetan kultur proposamenak egongo dira. Herriko hainbat musikaririk parte hartuko dute

Ainhoa Salterain Berdintasun zinegotziak elkarbizitzarako balioak sustatzera deitu die herritarrei. Eraso matxistarik egon ez dadin Beldur Barik kanpaina egingo dute, eta, sexu askatasunari dagokionez, Harrotasunaren aldeko kanpaina sustatuko dute, "Zornotza herri anitza" delako.

Bestalde, ANBOTO partaide duen *Jantzari* dokumentala ere egongo da ikusgai. Tradizioa eta parekidetasuna oinarri dituen ikus-entzunezkoa da, eta uztailaren 17an proiektatuko dute, Zornotza Aretoan.

Musika auzoetan

Zornotzako auzoetan ere musikaz gozatzeko kultur proposamenak egongo dira. Gainera, herriko hainbat musikaririk parte hartuko dute; tartean, Blanco y en Botellak, Supercremallerasak, Onintzek eta Inunek. Auzoetan guztira, 12 kontzertu antolatu dituzte.



'Jantzari' dokumentala.

OXFORD
LANGUAGE SCHOOL

OX
OXFORD LANGUAGE SCHOOL

Join us

PHONE US!
944 258 520 / 632 817 542

Gudari kalea, 6
Zornotza
Tel.: 944 258 520 / 632 817 542

ZOS
informatika

ORDENADOREAK
OSAGARRIAK
KONPONKETAK
MANTENIMENDUA

ENPRESETARAKO ZERBITZUA

Bizkaia
batuz

TicketBAI

Tel.: 94 630 12 12
info@zasinformatika.com
Gregorio Mendibil 9 behea
(Amorebieta-Etxano)

uxarte
SAGARDAOGINTZA


Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



0 - 18 URTE
HAZI eta HEZI gurekin



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

ib ibaizabal
IKASTOLA



Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus

“Horren harrera ona izateko, oholtzetan ibiltzen ginen garaiak kutsu bat utzi duela iruditzen zaigu”

Lau emakume trikitilari ezagun batu egin dira Amak proiektuan. Erromeriak utzi eta kontzertu berezia prestatu dute



ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Amaia Oreja, Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, eta Kristina Solano dira Amak taldeko lau kideak. Trikitilari laukoteak kontzertua eskainiko du uztailaren 24an Zornotzan, kaleratu berri duen diskoa aurkezteko. ANBOTOk Amaia Oreja elkarriketatu du.

Zelan sortu da Amak proiektua?
Ezustearen gertatu da dena. Oña-

tin trikitilari jaialdi bat egiten da urtero. Behin, Kristinari eta bioi joateko esan ziguten. Baita Maixari eta Alaitzi ere. Hamargarren urteurrena etorri zenean, parte hartzaileon artean taldeak egin zituzten. Gu laurok batzea erabaki zuten. Kanta batzuk prestatu eta animatu egin ginen. Hara ikustera joan zen beste trikitilari batek Errezilen ere laurok abes-

teko eskatu zigun. Eta emanaldi hartara beste pertsona batzuk joan ziren. Jendea gure saioa eskatzen hasi zen, eta ordubeteko ikuskizun bat prestatzea pentsatu genuen.
Xabi Solanogaz diskoa grabatu duzue. Zelako esperientzia izan da?
Xabi Solano Kristina taldekidearen neba da eta betidanik ezagutzen dugu. Gustu handia dauka

moldaketak egiteko. Produkzio lanetan bera edukitzea luxu bat izan da. Artista da. Diskoa grabatzerakoan, zuzeneko baina jantziagoa izatea gura genuen eta hor Xabik lan handia egin du.

Pandemiak prozesuaren zein momentutan harrapatu zaituzte?

Bete-bete. Aurrera egitea erabaki genuenean egoera berezi hau etorri zen. Denok batzeko, mugikortasun baimenak eskatu behar ziren... Oztupo batzuk topatu ditugu, baina lana kaleratu dugu.

Diskoaren hasieran Maurizia entzuten da. Zer islatzen du horrek?

Lehenengo emakume lez dago gure memorian. Primigaz batera, atzera begira jarriz gero... Garai hartan emakume bat plazara irteatea beste gizon guztien artean... Izan zirelako gara gu. Norbaitek bidea zabaldu du, eta Maurizia horietariko bat da. Emanaldietan Mauriziaren pandero handi bategaz joaten ginen, guretzat garrantzi handia duelako.

Letretan kolaboratzaile mordoak izan duzue. Onintza Enbeitza eta Karnele Jaio, esate baterako.

Garbi genuen letrak emakumei eskatu behar genizkiela, eta bina eskatu genizkien. Atsolorrari buruz eta amorruari buruz idazteko eskatu genion Enbeitari. Jaiori amari buruzko abestia eskatu ge-

nion. Ama garen emakume guztiok ukitzen gaitu letra horrek. Jaiori abesti baten doinua eman genion eta Zure izena idatzi zuen, emakume baserritarrari buruzko abestia. Oso gustura geratu gara kolaboratzaile biek.

Grabazioetan zein kolaboratzaile izan dituzue?

Harkaitz Miner, Txus Aranburu, Zigor DZ eta Arkaitz Bastarrika.

Asko gozatzen dugu. Adin honetan berriro bueltatzea ez gozatzeko, ez du zentzurik

AMAIA OREJA

Kontzertuen aldetik, zelan dator uda?

Oso ondo. Eskertzen dugu jendearen harrera. Maitatuak sentitu gara, berriro horren harrera ona izateko oholtzetan ibiltzen ginen garai horrek halako kutsu bat utzi duela iruditzen zaigu.

Laukote legez zelan ikusi duzue zeuen burua oholtza gainean?

Asko gozatzen dugu. Adin honetan berriro bueltatzea ez gozatzeko, ez du zentzurik. Laurok egiten duguna gustatzen zaigu eta guretzat plazer bat da. Ordubeteko saioa da. Gustura egiten da eta ez da sasoi bateko ordu eta erdiko erromerien modukoa. Garai hartan gazteak ginen, eta desorduetan jotzen genuen arren gustura egiten genuen. Baina orain ez ginateke horretara bueltatuko.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



Igurco Orue

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK



Igurco Jose
Maria Azkuna

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS
IMQ Igurco
ZERBITZU SOZIO-SANITARIOAK



SEKUENTZIA

Jarraitu sekuentziari eta marraztu dagokion irudia ikurra dagoen karratuan.

OSATU IRUDIA

Alboko hiru zati horietatik zein da egokia?







ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi honi?













ZENBATU

Zenbat daude lau objektu hauetako bakoitzeko?

	<input type="text"/>
	<input type="text"/>
	<input type="text"/>
	<input type="text"/>



SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.





'Tonbola'

ANTZERKIA ELORRIO :: Uztaileak 4

Europari buruzko satira basatia Hika Teatroren eskutik

Hika Teatrotik Europaz berba egin gura zuen, Europako muga eta territorioez. Askatasunaz, bizi mugimenduez, migrazioaz, enpatiaz, solidaritateaz... Horrela jaio zen *Tonbola* antzezlanak. Hika Teatrotik kideek diotenez, "bizitza tonbola bat da, eta guk zurea hankaz gora ipiniko dugu. Ez zaigu inporta nor zaren, zer

zaren ezta zer izan gura duzun ere".

Mugez ez dakien kabaret poetikoa da *Tonbola*, konpainiak berak definitu lez, umorearen, inkonformismoaren, absurdoaren eta errealismo krudelaren arteko konbinazioa. Hika Teatrotik Nizeto Urkizun aurkeztuko du, 19:30ean.

Uztailearen 2an

ABADIÑO bertsoak
Durungaldea uztabarrizten bertso zirkuitua: Txaber Altube, Miren Amuriza, Ander Sarriugarte, Ander Aldazabal eta Uxue Alberdi, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Ion Zialzeta. Sarrera eskuragarri Errotan bertan eta Mediatekan.

BERRIZ musika
Puro Relajo, 19:30ean, eskolako patioan.

BERRIZ antzerkia
'Fuera de stock' (Edu Manazas), 19:00etan, eskolako patioan.

DURANGO antzerkia
'I[n]tera[k]zio laborategia' (Bagara kolektiboa) 22:30ean, Tabira parkean.

OTXANDIO zinema
'Temblores', 22:00etan, Andikonan.

Uztailearen 3an

DURANGO antzerkia
'I[n]tera[k]zio laborategia' (Bagara kolektiboa) 22:30ean, Tabira parkean.

DURANGO bisita gidatuak
Arte eta Historia Museoko historia aretoko bisita gidatuak, 11:00etan (euskaraz) eta 12:30etan (gaztelaniaz), Arte eta Historia Museoa. Helduentzako saioak.

DURANGO antzerkia
J. Haydn-en 'Nelson Meza' (Durangoko Orfeoia eta Izadi Ensemble), 20:00etan, Andra Marian.

ELORRIO musika
Euskadi Ikasleen Jazz Orkestra, 20:00etan, Ganondo parkean. Musikaireren barruan.

Uztailearen 4an

ABADIÑO musika
'Irribarreak oparitzen' (De Norte a Sur) dantza ikuskizuna, 18:00etan, probalekuan. Gonbidapenak Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan.

DURANGO antzerkia
J. Haydn-en 'Nelson Meza' (Durangoko Orfeoia eta Izadi Ensemble), 19:00etan, Andra Marian.

ELORRIO azoka
Durungaldeko XXV. Nekazaritza Ekologikoaren Azoka, 09:30ean hasita, aparkalekuan. Elorrixa Ekologi Taldeak eta Marisatsa elkarteak antolatuta. Gainera, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak erakusketa bat atonduko du merkatuaren inguruan.

Uztailearen 7an

BERRIZ txotxongiloak
'Txotxongilo bertsolariak' (Toni la Sal), 18:00etan, eskolako patioan.

Uztailearen 9an

ABADIÑO San Kristobal jaiak
Luntxa, 20:00etan, Mendiola auzoan.

Bertso saioa: Amets Arzallus, Erika Lagoma, Iruri Altzerreka eta Txaber Altube, 21:30ean, Mendiolako frontoian. Gai jartzailea: Ainhoa Urien.

BERRIZ antzerkia
'Al otro lado' (Zanguango Teatro), 19:00etan, Olakueta plazan.

DURANGO tailerra
Inpresionismoa eta Regoyosen lana ezagutzeko tailerrak, Arte eta Historia Museoa. 5etik 7 urtera bitarteko umeei zuzenduriko saioek uztailearen 16an, 23an, 30ean eta abuztuaren 6an jarraituko dute.

DURANGO musika
Licenciado Vidriera, 21:00etan, Platerueneko terrazan.

ELORRIO antzerkia
Yllana, 20:00etan, Ganondo parkean. Musikaireren barruan.

MAÑARIA pelikula
'Un sueño posible', 22:00etan, plazan.

OTXANDIO zinema
'Urtzen', 22:00etan, Andikonan.

Uztailearen 10ean

ABADIÑO San Kristobal jaiak
Bolo eta Ugasixo Txapelketa, 12:00etan, Mendiola auzoan. Ondoren, ardoa, ogia eta gazta banatuko dira. Errifen zozketa egingo da.
Kontzertua. Anari, 19:30ean.

ABADIÑO musika
J. Haydn-en 'Nelson Meza' (Durangoko Orfeoia eta Izadi Ensemble), 20:00etan, Zelaietako San Trokaz elizan. Fernando Urain Oñederraren zuzendaritzapean jardungo dute. Gonbidapenak Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan.

DURANGO tailerrak
Gertufest: Artisanu lan eta produktuen azoka + Denboraren Bankuak antolatutako tailerrak (argazkilaritza, lorazaintza, lepoko bitxiena eta sukaldaritza), 17:00etan hasita.

'Mambo Bingo' (Ganso&Cia), 20:30etik aurrera.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

- **Fast & Furious 9**
barikua 2: 20:30 / 22:00
zapateria 3: 18:00/21:00/22:00
domeka 4: 17:15/20:00
astelehena 5: 18:00/19:15
martitzena 6: 18:00/19:15
eguztiena 7: 18:00/19:15

- **Las cosas que decimos, las cosas que hacemos**
barikua 2: 19:30/22:00
zapateria 3: 19:30/22:00
domeka 4: 19:30
astelehena 5: 19:45
martitzena 6: 19:45
eguztiena 7: 19:45

- **4 chicos y esto**
barikua 2: 19:30
zapateria 3: 17:00/19:30
domeka 4: 17:00/19:30
astelehena 5: 17:30
martitzena 6: 17:30
eguztiena 7: 17:30

- **Spirit-Indomable**
zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00

:: Zornotza ARETOA

- **Operación Camarón**
zapateria 3: 19:30
domeka 4: 19:30
astelehena 5: 19:30
- **Solan & Eri: Misión a la luna**
zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00



"Publikoak proposaturiko gaiak, desirak eta kezkak jaso, eta horiek eszenifikatuko ditugu"

Bagara kolektiboak 'I[n]tera[k]zio laborategia' aurkeztuko du asteburu honetan. Ikuskizuna ikusleen interakzioagaz eskainiko dute. Musika, gorputz adierazpena eta irudiak konbinatuko dituzte bertan

IKUSKIZUNA • EKAITZ HERRERA

Ane Gabilondo, Maider Etxegibel, Uribarri Atxotegi, Aritz Lasarguren eta Unai Bilbao daude ikuskizunaren atzean. Gogotsu daude 'I[n]tera[k]zio laborategia', azken hileotan landurikoa, jendaurrean erakusteko. Asteburu honetan emanaldi bi egingo dituzte. Barikuan izango da bat, eta zapatuan bestea. Eguraldiak ahalbidetzen badu, Tabirako elizaren ondoan eskainiko dute; bestela, San Agustin kulturgunean. Emanaldi biak 22:30ean izango dira.

Asteburuan eskainiko duzuen ikuskizunak askotariko arte diziplinak biltzen ditu. Zelan definituko zenukete artefaktu artistiko hau?

Aritz Lasarguren: Ikuskizun hau laborategi baten antzera antolatu dugu. Gure artean sorturiko sistema bat da, soinuek, irudiek eta mugimenduek bat egiten

duzen laborategi esperimentalak. Ikusleen parte hartzeagaz eta inprobisazioekin osaturiko ikuskizuna izango da.

Uribarri Atxotegi: Ez dago istorio edo narratiba lineal bat. Jolas bat izango da, publikoaren interakzioa izango duena. Publikoari eskatuko diogu gaiak, desirak, kezkak proposatzeko. Eta horiek jaso eta eszenifikatuko ditugu. Unibertso propio bat sortuko dugu.

Unibertso propio bat, beraz.

A.L.: Lengoia hibrido bat sortuko dugu. Hau da, publikoak proposaturiko gai horietan, artista bakoitzak bere ikuspegia azalera-tuko du. Eta gure arteko loturak bilatzea izango da gure lana.

U.A.: Prozesu luze batetik gatoz. Badugu aurrelanketa bat. Baina guretzat sorpresa izango da, ez dakigulako publikoak zein gai proposatuko dituen. Arrazoi

horregaitik, barikuan eta zapatuan eskainiko ditugun saioak diferenteak izango dira. Ez dira errepikatuak izango.

Zuzeneko musika, dantza eta irudien proiektzioa. Ikuskizuna sortzerakoan zelan orekatu duzue diziplina bakoitzaren pisua?

U.A.: Hain zuzen ere, horixe izan da egin dugun bidaia. Bost pertsona gara. Hiru mugimenduan ari dira, bat soinuan eta beste bat irudietan. Hasi ginenean, bakoitzak bereari ekiten zion, baina gerora konturatu ginen horrek ez zuela balio, denon arteko oreka bat behar zela. Eta hori bilatzen dugu laborategian. Demagun une batzuetan arlo bisualak indar handia hartzen duela. Bada, horrek ez du esan gura ikuskizun osoan zehar horrela izango denik. Bakoitzak bere zentraltasun horretatik irteten du, errepresentazioa modu globalean egiteko.

A.L.: Dantzariak gara eta txip hori sartuta daukagu, elkar ulertzen dugu.

Publikoaren parte hartze hori etorkizunean indartu beharreko bide bat dela uste duzue?

U.A.: Bai. Esango nuke hori badela denbora batetik hona gertatzen dabilen zerbait. Sortzaile-kontsumitzaile-publiko figura horien arteko mugak lausotu gura ditugu. Horixe da bidea. Gainera, diziplina artistikoen arteko mugak ere lausotzen dabilta.

A.L.: Antzerkian egin izan dira horrelakoak, inprobisazio saioak eta abar. Publikoari eskatu izan zaizkio gaiak proposatzeko.

Eta asteburuari begira, zein sentipen nagusitzen dira zuen artean? Urduritasuna? Gogoa?

U.A.: Ni pertsonalki gogotsu nago. Honek, azken finean, jendeagaz funtzionatzen du, hartu-eman horietan. Gogotsu gaude, ikusteko ea zelan funtzionatzen duen.

A.L.: Sortze prozesua luzea izan da, baina oso emankorra. Ebo-luzio bat egin dugu, eta gogoz gaude hori plazaratu, jendeagaz partekatu eta jolasteko. Efektu bisualetarako, kamera berezi batzuk erabiliko ditugu. Ikusmen artifiziala erabiltzen dute eta gai dira gorputzeko mugimenduei jarraitzeko. Sorpresatxo batzuk egongo dira.



Etxegibel, Lasarguren, Atxotegi, Gabilondo eta Bilbao.

Platerueneko proiektu berria kudeatzeko 'Lantegi eta erakusleiho' proposamena aurkeztu dute

Askotariko eragile eta elkartetatik jasotako iritziak hartu dituzte oinarri proiektua osatzeko

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Plateruena ta gero zer? dinamikaren ondorioekin osaturiko kudeaketa proiektua aurkeztu dute. *Plateruena: lantegi eta erakusleiho* izeneko txostenak Plateruenaren itxierak utziriko hutsunea eta Durangoko beharrikak betetzeko helburua du.

Lau ardatz dituen proiektua da. Alde batetik, Plateruenak "kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa" izan behar duela azaldu zuten eguaztenean Platerueneko kanpoaldean eginiko aurkez-

penean. "Honela, kultur transmisio horizontala sustatu gura dugu".

Plateruenak "kultur sorkuntzaren prozesu osoa garatzeko espazioa" behar lukeela uste dute

Hizkuntzari dagokionez, ekin-tzak programatzerakoan nahiz sortzerakoan euskara "lehenestea"

da beste ardatzetariko bat. Horrez gainera, Durangoko kultur ekosistema "elikatu" eta kultur eragileen sarea osatzea "beharrezkotzat" jotzen dute, kultur egitasmo eta erakundeen arteko "elkarlana koordinatzeko eta sustatzeko". Azkenik, Plateruenak "herritarrak inplikatze mekanismoak" behar dituela azaldu dute, "herritar guztientzako zerbitzua eskaintzeko".

Ondorio hauek 2020ko urrian *Plateruena ta gero zer?* dinamika martxan ipini ostean abiatu-riko

harreman bira eta parte hartze prozesutik datoz. 22 elkarte eta erakundeagaz eta kultur arloko 34 lagunekin batu dira aurrez aurre iritziak partekatzeke, eta, horrez

gainera, lau saio ireki egin dituzte; saio horietan 82 lagunek parte hartu dute. Durangotik kanpoko esperientziak eta antzeko proiektuak ezagutzen ere egon dira.



Platerueneko kanpoaldean eguaztenean eginiko aurkezpeneko irudia.

Gai librean

Pertsonaiak

Neure burua harrapatu dut inoren zaborrontzitik Ripley eta Celestina erreskatatzen. Ulertuko duzue: nire parte dira. Max Estrella, Maja biluzia, Mortadelo, Bernarda Alba, Izeba Tula, Errege Magoak, Pippi Kaltzaluze, Superman, Tintin, Anbotoko Mari, David Copperfield, Frankenstein, Mafalda, Skywalker, Tartalo, Drakula, Agate Deuna, Sherlock Holmes, ET, Peter Pan, Madame Bovary, Don Vito Corleone, Alice, Printze Txikia, Bostak, Headcliff, Jane Eyre, Itziarren semea, El mochuelo eta Zalakain bezainbeste.

Norbere fikziozko pertsonaiek espazioan eta denboran kokatzen gaituzte. Zenbaitetan inoraz edota inoiez-eraraman ostean, hona eta gaur egunera bueltatzen gaituztelako. Zirrarak biziara dizkigute gure bizitzatik euren bizi izan dugunean. Umetan eta gaztetan, batez ere. Askotan bizitzak berak ematen ez dizkigunak. Agian artean adinik ez genuelako. Horregatik maite ditugu: euren esperientzien protagonista izatearekin, geugan gure beste izaerak pizten dizkigutelako.



Josune Aranguren
Filosofoa

Bizitzan zeharreko pertsonaiak topatuak dira, ez bilatuak: edo irakasleak agindutako irakurgaietan daude, edo lagunak proposatutako filmean edo museoko bisita planifikatu gabean, edo familiako ohituran, edo izekoren egongelako komikian, edo eskolako liburutegiko apal batean.

Norbere fikziozko pertsonaiek espazioan eta denboran kokatzen gaituzte

Inoiz maitasunezko istorioaren bila joan eta Gaztelako landa eremuko bizimoduan ehizan aritu izan gara eta, beste inoiz, gerra aurreko sasoiara irakasleak abiarazita, Madrilgo kafe bateko tertuliakide izan gara. Momentu mistikoetatik aurrera, betiko geure dira Londoneko galtzada-harrien soinu-distirak, New Yorkeko porlanezko eraikinen ar-

teko zurrunbiloak, marmolezko mahaitxo baten inguruko sekretu isilak, lutoz janztearen tristura, paramoan aurre egiten digun txakurrak eragindako ikara edo banpiroaren lepoko hozkadaren sentsazio kontraesankorrak.

Pontevedrako aldea batera joan eta Valle Inclán-en pertsonaiek pertsona bihurtzen direnean, irakurketak norbere ondare izateak gure bizipenak eraldatzen dituela sumatzen dugunean, beste behin ere hortaz elikatu beharra nozitzen dugunean, geure bizitzako pertsonaiei aitortza egiten diegu. Agian Victoria Erreginari London-era bidaiatzeko aukera kimera da. Hala ere, beharbada kultura horren herentzia duen norbait ezagutzeko parada dator-kizu. Batek daki.

Kixotezkoa da egungo egoera. Galdeiozu Heidi baizina. Don Juaneotan ari zen. Nire Julieta zara. Yupiren munduan bizi zara. Gure unibertsalen parte dira, gure kultura eta hizkuntzakoak. Gure kosmogoniakoak.

Eurak hor daude. Gure zain. Gure munduari parametroak ematen laguntzeko gertu.

**ERRESERBA EGIN,
BERRIZ BIZI
IZATEKO**

Zureekin, bizitzaz eta zorientasunaz gozatzen duzun arratsalde horietan. Oraindik ere hunkitu egiten gaituzten gauza txiki horiek.

#RESERVALARIOJA
www.lariojaturismo.com

Informazio gehiago

LA
RIOJA

Durango Nissan Gaursako gizonak azpitzapeldun geratu dira ligan, eta emakumeetan oinarriak lantzen jarraitzen dute

Gizonen taldeak Euskal Liga irabazteko aukeragaz jokatu zuen azken jardunaldia, joan zen asteburuan, Sarako Rugby Taldearen kontra



Kiroltasuna nagusi: DRTko jokalariek txaloak jotzen, Sarako Rugby Taldeko jokalariek txapeldunaren garaikurra jasotzen duten bitartean.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Amaitu da aurtengo denboraldia Durango Rugby Taldearentzat. Gizonen talde nagusia izan da amaitzen azkena. Joan zen asteburuan, Euskal Ligako azken jardunaldian, ligako lehenengo sailkatu biek neurtu zituzten indarrak: Sarako Rugby Taldea liderrak eta Durango Nissan Gaursak. Durangarrek garaipena behar zuten liga irabazteko, baina, azkenean, Sara gehiago izan zen eta eurek eskuratu zuten garaikurra. "Liga irabazteko borrokan egon izana oso positiboa da. Are gehiago, kopuru aldetik taldean jokalaririk sobera izan ez dugula kontuan hartuta", baloratu du Aratz Gallastegi klubeko kirol zuzendariak.

Berez, joan zen asteburuko partidua ligako azken-aurrekoa izan behar zuen, baina Sarako jokalaribaten konfinamenduaren ondorioz partidua atzeratu egin zen. "Aurtengo ligan gorebehera asko

egon dira COVIDaren kontuagaz", onartu du Gallastegik. Lau partidua atzeratu behar izan dituzte arrazoi horrengatik.

Emakumeen Nissan Gaursa talde nagusia ere oportetan da. Ezaugarri nagusi gaztetasuna duen taldean, denboraldian zehar erakutsitako "progresioa" azpimarratu du Gallastegik: "Jokalaria gutxigaz hasi zuten denboraldia eta dezente gehiagogaz amaitu dute. Oraingo taldeari eustea espero dugu, etorkizunera begirako oinarriak lantzen joateko". Promesa gazteen adibide bi Elene eta Izaro Rementeria ahizpak dira. Orain dela aste bi, 18 urtez azpiko Euskadiko selekzioagaz aritu ziren Asturiasen jokatu zen errugbi 7ko txapelketa batean.

Gazteen taldeak

Pandemiak kirol jarduerak eten beharra ekarri du denboraldiko sasoi batzuetan. Alde horretatik, klubarentzat "garrantzitsua" izan

da formakuntza taldeak eta eskola berriro martxan ipintzea. "Egoera ikusita, etxean geratzea zen posturirik errazena, baina gazte askorentzat asteko ekintza fisiko bakarrenetarikoa zela kontuan hartuta, errugbia berriro eskaintzeko apustua egin genuen. Gazteei kirol eskaintza berriro eman ahal izatea izan da guretzat denboraldiko gauzarik pozgarriena", adierazi du Gallastegik. DRTren formakun-

tza egituran, 16 eta 18 urtez azpiko taldeak eta errugbi eskola sartzen dira. Errugbi eskola martxan ipintzea bereziki konplikatua izan da, jarraitu beharreko segurtasun

"Gazteei kirol eskaintza berriro eman ahal izatea izan da denboraldiko gauzarik pozgarriena"

neurri guztiengaitik (talde txikietan burbuletan banatu beharra eta abar), baina ahaleginak "merezi" izan duela eta familiek "eskertu" duten zerbait dela uste du Gallastegik.

Egoitza berria

Klubeko egitura sendotzeko bidean, aurrerapauso garrantzitsua eman dute aurten Goienkalen egoitza berria atondu eta zabalduta. Batzarrak egiteko eta eguneroko jarduerarako estrategikotzat jotzen mugimendua da.

Azpiegitura berritua DRTren jabetzakoa da eta honako gune hauek ditu: biltegia, batzar gela, erabilera anitzeko gela, komuna, garbategia...

Herriko gainerako elkarteei ere atea zabalduta diete euren batzarrak egiteko, eta, klubeko kideen esanetan, dagoeneko elkarte batek baino gehiagok eman dio erabilera azpiegitura berriari.



Etorkizunera begirako zimenduak lantzen dabilta emakumeen taldeko jokalariek gazteeekin.



Bambino Rugby Eskolako gazteak, denboraldiko azken saioan.



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Durungaldeko pilotariak Bizkaiko trinketean erreferente direla erakutsi dute

Joan zen asteburuan jokaturiko hamar finaleratik bost eskualdeko bikoteek irabazi dituzte



Goian, Ibai Arroitauregi eta Urko Bullon; behean, Tornosolo trinketeko finalisten familia argazkia; eskuman, Igor Azpiri eta Asier Bikuña.

TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Trinketean, Durungaldeak punta-puntako klubak eta pilotariak ditu Bizkaian. Bizkaiko klubaren arteko txapelketako emaitzak errepasatzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Joan zen asteburuan jokoan egon ziren hamar txapeletatik erdiak, bost, eskualdeko etorri ziren.

Durungaldeko ordezkariak erabateko nagusitasuna erakutsi dute esku pilotan, jokatu diren hiru mailetan irabazi dute eta: lehen mailan, Durango Pelota klubeko Unai Agirrezabalek eta Asier Aspuru; bigarren mailan, Elorrioko Hori-Hori klubeko Igor Azpiri eta

Asier Bikuñak; eta hirugarren mailan, Abadiñoko Atxarte klubeko Gaizka Alustizak eta Igor Galarzak. Gainera, Zornotzako Lagun Onak taldeko Ioritz Prieto eta Iker Eskamez azpitxapeldun geratu dira bigarren mailan.

Esku pilotako hiru mailetan nagusitu dira; Aspuru-Agirrezabalek jantzi dute lehen mailakoa

Hori gutxi balitz, gazte mailatan ere nabarmendu dira, harrobia indartsu datorrela erakutsita.

Kadete mailan Lagun Onak taldeko bikote bi heldu ziren finalera. Ibai Arroitaureguik eta Urko Bullonek osaturiko bikoteak jantzi zuen txapela eta Alain Murillo eta David Alonso geratu ziren azpitxapeldun.

Gomazko paletan

Gomazko paletan heldu da azkenengo txapela. Modalitate honetako lehenengo mailan, Abadiñoko Tornosolo klubeko Jon Aboitzek eta Agustin Maldonadok osaturiko bikotearentzat izan da txapela eta Mallabiko Malle klubeko Mikel Garcia eta Ander Asurmendi geratu dira azpitxapeldun.

Bizkaia-Durangok garaipen bana Kopan eta Portugalgo txapelketan

Sandra Alonsok Espainiako Kopako hirugarren lasterketa irabazi zuen Valentzian, Ziortza Isasiren aurretik

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Espainiako Kopa osatzen duten bost lasterketatik lau jokatu dituzte dagoeneko eta eurretari bat Bizkaia-Durangok irabazi du, Sandra Alonsoren bitartez. Txirrindulari alacantarrak L'Arrosoko klasikoa irabazi zuen orain asteburu bi, Valentzian.

Alonsok eta Ziortza Isasi elorriarrak (Eneicat) borroka estua mantendu zuten kilometro askotan. Azkenean, esprintean erabaki zen irabazlea.

Alonsok 2018an debutatu zuen profesionalean, Bizkaia-Durango-gaz. Denboraldi bi osatu eta gero, Cronos Casa Dorada taldean aritu zen iaz, eta emaitza onak lortu zituen. 22 urteko gaztea Bizkaia-Durangora bueltatu da aurten.

Garaipena Portugalen

Alonsoren garaipenari hiru egun lehenago Daniela Camposek lorturikoa gehitu behar zaio. Campos Portugalgo erlojupeko txapelketan nagusitu zen.



Sandra Alonso helmugan, Ziortza Isasiren aurretik.

Jokaldia

Munduko Kopa martxan

2021a motel hasi zen mendiko lasterketei dagokienez, baina badirudi apurka-apurka martxa hartzen hasi dela. Euskal Herrian zenbait lasterketa egin da urte hasieratik hona, eta irail eta urrirako beste asko daude antolatuta. Beste horrenbeste esan dezakegu mundu mailako lasterketez ere. Munduko Kopa edo Sky World Series zirkuituari dagokionez, lehenengo proba apirilean jokatu zen, Japonian. Korrikalari gutxi izan zuten hara joateko aukera. Koronabirusak eragindako egoera dela-eta Munduko Kopa eraldatu egin behar izan dute eta hainbat lasterketa bertan behera geratu da. Ekainetik aurrera, ostera, badirudi lasterketak berpiztu egin direla, egoera "lasaitu" egin dela, eta zabaldu egin dela atzerrira korritzera



Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketak

"Ekainetik aurrera badirudi lasterketak berpiztu egin direla eta zabaldu egin dela atzerrira korritzera joateko aukera"

"Irteerako betiko sentsazio hori berriro bizitzea oso atsegina eta hunkigarria izan da benetan"

joateko aukera. Horren adibide dira azkenengo asteburu bietan jokatu diren lasterketak, Italian eta Austrian. Mundu guztiko korrikalariak izan dira bietan. Nik neuk Austriara joateko aukera izan dut eta oso sorpresa atsegina hartu dut han. Korrikalariekin elkartzeaz gain, bertan sortu den giro lasai eta sanoa aspaldian sentitu

ez bezalakoa izan da. Han musukoa ez da beharrezkoa kalean edo aire librean, inork ere ez du erabiltzen, supermerkatu, tabernara edo barruren batera sartzeko ez bada. Eta behin lasterketako irteera gunera sartuta (aurrez antigenoen test negatiboa aurkeztuta) dena "libre", musukorik ez inon. Irteeran besarkadak, bostekoak eta patxoak ziren nagusi, eta horrek aspaldian proba batean sentitu ez ditudan poza eta ilusioa ekarri dizkit.

Irteerako betiko sentsazio hori berriro bizitzea oso atsegina eta hunkigarria izan da benetan. Eta gauza bera esan dezaket bertako jendeari buruz ere. Oso pertsona adeitsu eta eskuzabalak aurkitu ditut Austrian, eta guztion artean sortu den giroa oso berezia izan da. Honi guzti honi lasterketa bera gogorra eta ederra izan dela gehitzen badiogu, asteburu mundiala izan dela esan behar.

DURANGALDE



Zubiaurretarren etxea, Garain

Garaiko etxe hau artean, musikan eta literaturan lorratza utzi duten zubiaurretarren bizilekua izan zen. Valentin Zubiaurre musika konpositoreak (1837-1914) eta haren hiru seme-alabek, Pilar Zubiaurre idazle eta feministak, eta Valentin eta Ramon Zubiaurre margolariek ekarpen garrantzitsua egin zuten, norik bere arloan.

KO TXOKOAK!



Felipe Arrese Beitiaren irudia, Otxandion

Felipe Arrese Beitia (1841-1906) Otxandiok eman duen idazle eta poetarik garrantzitsuenetarikoa izan zen. Hego Euskal Herriko Lore Jokoak hasi zirenetik ez zuen bakar batean ere hutsik egin eta haietan sari asko lortu zuen. Elizpeko atarian bere omenezko bustoa dago, eta bere testu bat idatzita harrian.

ZORITZILOR

EUSKALDUN
JAYO NINTZAN
EUSKALDUNA AZI,
EUSKARA UTSIK AMAK
EUSTAN IRAKATSI,
EUSKARA MAITE MAITE
ZABILTZ NEUGAZ BETI
EUSKARA ILL ESKERO
EZ DOT GURA BIZI.

DONOSTIAN 1881-10-24 AN

FELIPE ARRESE TA BEITIA

30 BIDER SARTU
IZAN ZAR.

KAN EUSKERAREN
AZKEN AGURRAK
1879 AN ELIZANDON.

NEZI DA
AMX EUSKERA
1860 AN HAZULEN.

GOI GORA SARTU
GURE IZERRA
1500 AN DURANGON.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
JESUITAK: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela handiak. Erdialdean. Ganbara. Eguzkitsua.
206.000€ C.E.E=G



ABADIÑO
ABADIÑO: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Ikuspegiak.
165.000€ C.E.E=E



ABADIÑO
ABADIÑO: 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
200.000 € C.E.E= E



DURANGO
ARTEKALE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza komunitarioa. Bizitzera sartzeko moduan.
195.000 € C.E.E=F



IURRETA
BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua.
125.000 € C.E.E=G



DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzera sartzeko moduan.
178.000 € C.E.E=G

// ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.
DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA
KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI
DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatuko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

IURRETA: Arriandi. 3.036m²-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
MARTXOAREN 8KO KALEA: 12 urteko antzinatasuna. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialdea/mendebaldea). Argitsua. Altua. 18,30 m²-ko garaje itxia. Ezin hobea. Leku onean kokatua.
92,71 m²
315.000 € C.E.E: Bidean



ABADIÑO
ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. 79,7 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.
2 logela
79,7 m²
200.000 € C.E.E:E



ZALDIBAR
EUSKAL HERRIA KALEA: 10 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia. 2 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea, hego-mendebaldea) Argitsua. Igogailua. Ezin hobea. 18 m²-ko garaje itxia. Leku onean kokatua.
2 Logela
84 m²
219.000€ C.E.E:E



ABADIÑO
MENDIOLA AUZOA: 11.200 m²-ko lursaila. Eraikigarria, oinarizko proiektua bifamiliarra egiteko. Sotoa/Etxabea/Lehenengo solairua. Ezkerreko etxebizitza, 290,45 m² erabilgarri/ Eskumako etxebizitza 289,54 m² erabilgarri.
225.000€ AUKERA



DURANGO
GALLANDA: (14 urteko antzinatasuna): 110 m². (bi altuera) Egongela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar/Hegoalde). Argitsua. (Azalera handia, kristalezkoa). Inguru naturala. Garaje itxia, 60 m²-koa. Lursail partekatua, 20.000 m²-koa. Igerileku klimatizatua, portxea, egur-labea.
4 Logela
110 m²
430.000€ C.E.E: Bidean



ABADIÑO
SAGASTA AUZOA: 20 urteko antzinatasuna. Bifamiliarra (erdia). 300 m² erabilgarri 4 altueratan banatuta. egongela, sukalde jantzia, 7 logela, 4 komun eta 3 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar/Hegoalde). Argitsua. (Azalera handia, kristalezkoa). Inguru naturala. Garaje itxia, 60 m²-koa. Lursail partekatua, 20.000 m²-koa. Igerileku klimatizatua, portxea, egur-labea.
300 m²
549.000 € C.E.E: Bidean

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=G**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **LEHEN 160.000 € / ORAIN 140.000 € E.E.Z=G**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. **290.000 €**

//IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MAÑARIA

KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durangon eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK - DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 2 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 3 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo
22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 4 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 5 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 6 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 7 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 8 · 09:00-09:00

DE DIEGO INTXAURREONDO
22. - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak, **Inhar**, 7 urte, mutil handi! Jarraitu zaren modukue izeten, astokilo ta mimoso topera! Pila bat maite zaittugu!



Zorionak, **Kattalin**! Familiako danon partez! Disfrutau topera zure egune!



Zorionak, **peña**! Zure traguen zain jarraitzen dogu. A, ta bizikleta bueltie nozko? Mosu handi bat!



Zorionak, **Peio**, zure 8. urtebetetzean. Primeran pasatu eta jarraitu orain arte beza-lako mutiko jatorra izaten. Mosu handi bat etxeko guztion partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 25° / 16° ☁

ASTELEHENA ↓ 29° / 14° ☁

EGUAZTENA ↓ 22° / 14° ☁

DOMEKA ↓ 22° / 15° ☁

MARTITZENA ↓ 23° / 15° ☁

EGUENA ↓ 21° / 14° ☁

SCHMIDT
Home SCHMIDT Home

Montatzaileak behar ditugu. Deitu edo bidali kurrikulumak
info@schmidt-abadiano.com

605 740 176

SCHMIDT ABADIÑO

“Oihal jasangarri eta kalitatezkoak erabiltzen ditut osagarriak sortzeko”

Itsasne Mairanak osagarriak sortzen ditu, 'Lorekin' izenpean. Poltsak, mototsekoak, giltzatakoak, turbanteak eta zakutxoak egin ditu eskaripean, loreetan inspiratuta



Itsasne Mairena Rua
Lorekin
ELORRIO | 1993

ARTISAUTZA • AITZIBER BASAURI

Urtebete egingo du orain Itsasne Mairanak 'Lorekin' proiektua sortu zuela. Uda osoa aurretik zuela, josteko makina erosi zuen entretenituta egoteko, josten ez zekien arren. 'Lorekin' loreak ardatz dituen proiektu txikia da, loreen askotariko estanpatuak dituzten oihalekin eginiko osagarrien proiektua. Euskal Herri osotik jasotzen ditu eskariak, Instragramen bitartez: @lorekin.

Josteko makina erosi zenuen josten jakin barik. Ibilian ikasi duzu dena.

Bai. Mototsekoak, turbanteak eta abar egiteko grina hori izan dut beti. Hartara, josteko makina erosi, mahai gainean ipini, eta youtubeko bideoak ikusita ikasi nuen zelan

ipini orratza, zelan ipini haria... Lehenengo egunean orratz bat apurtu nuen (barrez). Mototsekoekin hasi nintzen, zakutxoak etorri zen gero... Gauzak pilatzen hasi zitzaizkidan, eta itxialdian Instragramen erabilerari buruz eginiko ikastaroa praktikan ipintzea pentsatu nuen. Sorturikoak erakustea zen helburua, bestelako prententziorik barik, ikasitakoari etekina ateratzeko asmoz.

Irakaslea zara, lanordu osoan. Nora eramango zaitu abentura honek?

Ez dakit! Eskuetatik joan egin zait apur bat, ez nuen espektatibarik. Eskariak jasotzen hasi nintzenean, hauxe pentsatu nuen: 'Zer da hau?'. Errorika horrek bultzada bat eman

zidan. Eta pentsatzen hasita nago udara begira zein gauza berri atera. Orain, sortzen ditudan osagarriei erabilera bat baino gehiago eman guran nabil.

“Josteko makina mahai gainean ipini eta youtubeko bideoak ikusita ikasi nuen zelan ipini orratza, zelan ipini haria...”

Ez zenuen horrelako harrerarik espero? Inondik inora ere ez! Oso pozik nago. Ezagutzen ez nuen mundu

bat ezagutu dut, beste artisau batzuk ezagutu ditut, eta ideiak eta esperientziak partekatzeko aukera izan dut. 'Lorekin'-ek ikuspuntua zabaltzeko aukera eman dit. Konfinamenduagaz, jende asko batu da proiektu txikietara, eskaintza handia dago, produktu antzekoak eskaintzen dira, batzuetan oihal berdinekin. Horren aurrean, zerbait berezia aurkitzen, sortzen eta eskaintzen ahalegintzen naiz.

Oso pozik nago. Ezagutzen ez nuen mundu bat ezagutu dut. Beste artisau batzuk ezagutu ditut, eta ideiak eta esperientziak partekatzeko aukera izan dut

Loreen estanpatuak dituen oihalak erabiltzen dituzu. Loreak dituzu inspirazio?

Bai. Loreekin obsesio txiki bat izan dut beti. Osagarriak erosi ditudanean ere beti hartu ditut loreduinak. Gainera, oihal jasangarriak eta kalitatezkoak erabiltzen ditut. Materiala birziklatua den, kotoi organikoa den... begiratzen dut.

Izan duzu eskari berezirik?

Harrituta geratu nintzen Lekeitioko denda baterako eskaria jaso nuenean. Osagarria zuzenean ikusi eta ukitzeko aukera ona da. Bide hori zabaltzea aukera eroso eta bideragarria litzateke.

Zeintzuk dituzu etorkizuneko erronkak? Proiektuagaz jarraituko dut, ez dakit zelan. Lanordu osoan nabil, eta horrek eskaripean lan egitera narama. Oihalak erosi eta erakusten ditut, eta egin daitekeena proposatzen dut. Horren arabera eskariak ditut.

Zeintzuek dute arrakastarik gehien?

Sasoaren arabera. Iazko udan mototsekoekin zoratu ginen, eta ikasturtea hastean giltzatakoek arrakasta handia izan zuten. Poltsek ere oso harrera ona izan zuten. Orain turbanteak eskatzen dituzte asko.

Kalean zure osagarriak ikusita, zer sentitzen duzu?

Poz handia, ezagutzen ez dudan norbaitek badarama, batez ere.

Lauhortza

Markel Onaindia Txabarri Kazetaria



Mudantza

Asteon mudantza egin behar izan dut. Trasteak kaxetan sartu, etxe berrira mugitu, kaxak hustu, gauzak kolokatu... Atse-dentxo bat hartu eta zutabea idazteari ekin diot. Hara eta hona dabilen titiriteroaren bizitzak badu aire aske bat, baina baita zama nekagarri bat ere. Batez ere, norabidez aldatzeko erabakia ez dagoenean norbere arengan.

Esan behar dut zortedun sentitzen naizela azkenaldi honetan eduki dudanez etxejabeagaz, eta sentsazio bera daukat berriagaz. Baina atzerago izan ditut esperientzia txarrak ere, eta etxe bila ibili naizetan ez sinisteko moduko baldintzak eta prezioak topatu ditut. Alokairua nekez izango da alternatiba erreala bat, erostea baino

Zuetako zenbatek erosi duzue etxe berriak alokairuagaz?

karuagoa baldin bada. Hala ere, erregulazio justu batez amesten dugun bitartean, gungandik hasita ere egin genezake zerbait. Zuetako zenbatek dauka etxe edo baserri bat hutsik? Zuetako zenbatek ipini du pisua alokairuan, puztutako merkaturu baten arabera prezioan? Zuetako zenbatek erosi duzue etxe berria guk ordaindutako alokairuagaz? Albokoak egiten duenari eta norbere etekinari larregi begiratzen zaio, "ez nadin tontoa izan" esanez bezala. Klara, tontoak gu ei gara, alokairuan bizi garenok.

Banoa kaxak betetzen jarraitzen. Aro bat amaitu, beste bat hasteko. Azalberritze bat. Eta bide batez pandemia osterako mudantza ere egiten badugu, itzel.

Estetika gida
anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO
Ile-apaindegia

Ile-apaindegia
IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

